



Aretxagazeta

Aretxabaleta ● 2000ko abenduaren 22an ● 204. zka.



U
r
t
e
k
a
r
r
i
a

20000



*50 urte hauetako
fideltasuna
eskerteru*


ASENSIO *se*

*Zorionak eta urte
berri on bat
opa dizue.*

1950 2000



Eskaintza:
Lehenengo
100 bazkideek
matrikularen
%50 bakarrik
ordainduko
dute.



urtarrilerako zabalik



Zainduz

OSASUN ETA FITNESS ZENTRUA
CENTRO DE SALUD Y FITNESS

**Zure bizi-kalitatea
dugu helburu!**

**Ilargi Plaza, 6
Aretxabaleta
Tel. 658 75 80 12**



Zein balorazino eingo zeuke 2000. urtiaz?



Antonio Astigarraga
Parrokia

Hiru aspektu azpimarratuko nittuzke. Parrokiko proiektuei in da, alde batetik, eta pastoral mailan aldaketa garrantzitsuek egon die, bestetik.

Auzoetako elizetan in dien obrak eta parrokia berritzen hasi gara ere aipatuko nauke aurtengo urtetik.



Luis Mari Arejolaleiba
Akordeoi orkestra


Oso baloraziño positibue eitten dou aurtengo urtiaz. Lau kontzertu emun dittugu, eta ondiokan beste bi geldiketarak jaku. Uste gauena baino emanaldi gehixau sortu jaku.

Ezautzera emuteko, bestealde, Saretxon laguntziaz web orri bat be zabaldu dou.



Mariatzen Urkia
Leizarra musika eskola

Leizarra musika eskoliak jarritta zittuen helburuek hobetzie lortu dau aurtengo urtien. Irakaskuntza kalitatean, ikasle kopuruan eta eman dittugun audizio eta kontzertu kopuruetan lortu da hori. Gainera, herriko elkarte eta jai gehixenetan kolaborau dou.



Anjel Bergaretxe
Alkatea


Urte honetan gure herriko normalizazino bidian, atzera pauso itzelak emun die, eta oin urte bi sortutako giro itxaropentsue, ia guztiz puskatu dou. Nire ustez bidia nundik joan leiken ikusi gauen, eta aukeria guztiz galdu gura ez bou, bide horretan jarri bieko indarrak.



Karmelo Olabe
Aretxabaleta abesbatza

Urte berezia izen da guretzat, izen be, aurtun abesbatza sortu zala 20. urteurrena ospatu dou. Horreatik Italiara biajia in gauen, Monakon eta Erroman kontzertuak emunaz.

Bestetik, El Caserio antzezlan euskaraz antzestu dou lelengo aldiz.



Jokin Antxia
Aratz elkarte

Aurtengo helburuen artien ez gaituendako in gura dan etxebizitza gehien, eta alde horretatik obrak hasi diela esan geike.


Zinerik ez dauenez, ezin izen dou ekitaldirik in, baina gastronomi eta folklore jaialdian bertako produktuen txokua jarri gauen.



Antonio Diez
Basotxo elkarte

Pentsautako aktibidade danak aurrera atera dienez, urtie ondo fan da. Batez be, biajietan parte hartu daue jubilauak, baitte hitzaldi eta ikastaruetan be.

Urtie buketako Santo Tomas egunez, jubilaue artien 40 bat erregalu zozketatuko dittugu.



Xabier Basabe
Murruxiko M. elkarte

Ekainien antolatu gauen 1. mendi martxiak arrakasta haundikue izen zan. Bestalde, urteroko ekintzak egon die, Kurtzebarri eguna, San Migeletako txoznia... Piraguisimo sailien, barrez, urteixera batzuk in die, eta sail horretako bazkide kopurue igo in da.

Aretxagazeta



Aretxabaletako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta Busko Jaurlaritzako Kultura sailak lagunduta

204. zenbakia. 2000ko abenduaren 22an. Durana 11, 151 postakutxatila Aretxabaleta. Tel: 943 79 86 21 Faxa: 943 77 18 54

e-mail: aretxagazeta@euskalnet.net

Argitaratzailea: Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarte.

Lehendakaria: Edorta Mendietak. Erredakzio-kontseilua: Begoña Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia, Mireia Urribetxebarria, Goretti Ayastuy, Ibon Agirre. Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna: Mirari Altube eta Iratxe Bengoa. Kolaboratzaileak: Mikel Arroabe, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Loramendi E. E., Udala. Banatzaileak: Aitor Urrutia, Iratxe Arbulo.

Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk. Tirada: 2.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da. Lege gordailua: SS378 / 94. ISSN: 1134-2069. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

MOTZEAN

■ ONCEKO SARIA

ONCEko 237.527 zenbakiak 50 milioi banatu zituen herrian urtarrilaren 19an. Jon harategian saldu ziren hamar txarteletik zazpi herrian geratu ziren, eta beste hirurak, kanpora eramane zituzten. Txartel bakoitzak bost milioiko saria zeukan.

■ SANTA AGEDA

Urtarrilean hasi ziren Santa Ageda mutilak dantzatza entsaioekin. Urtero moduan Eli Blanco, Igone Zaloña eta Ainhoa Calleja izan zituzten irakasle.

■ TANBOR HOTSA

San Sebastian egunez ohitura den moduan tanborrada egin zuten Kurtzebarri eskolan, Santa Rita ikastetxean eta Pausoka haur eskolan.

■ OBRAK FUTBITO KANTXAN

Udalak Andra Mari auzoko futbito kantxan obrak egitea aurreikusi zuen urtarrilean, lurra bota eta margotzea besteak beste. Ilargiko etxe berrien urbanizazioa guztiz bukatu arte itzarotea pentsatu zen, gero kantxako lanak arazo barik egin ahal izateko.

Edukiontzi larua jarri ziren herrian

Urtarrilean Deba Garaiko Mankomunitateak edukiontzi larua jarri zituen herriko kaleetan. Edukiontzi berri hau etxeko ontzikiak biltzeko helburuz ipini zen, besteak beste, etxeko plastikozko ontziak, ur, freskagarri, olio, leungarri, gel,

eta baita, brik eta kontserba ontziak jasotzeko ere. Guztira 12 jarri ziren Aretxabaletan eta Deba Goienan, barrez, 127; 500 biztanle bakoitzeko edukiontzi bat. Ontziok lehengo edukiontzi berde eta urdinen ondoan kokatu zituzten.



Gaztetxearen etorkizuna eztabaidagai

Etorkizuneko gaztetxea nolakoa izango den erabakitzekeo Gazte Asanbladak hainbat bilera eta ekitaldi egin zituen gaztetxean. Horien artean hitzaldiak, pelikulak, emanaldiak... izan ziren. Herritarrek erantzun ona eman zuten ekitaldietan parte hartuz.



BIDEZKO MERKATARITZAREN INGURUKO EKINTZAK

Parrokiako Sendotzako Gazteek osatzen duten Misio Taldeak eta Hiruatzek, hainbat ekintza antolatu zituzten. Horien artean, Bidezko Merkataritzaren inguruko hitzaldia antolatu zen. Gipuzkoako karitaseko Ibon Narbaizak zuzendu zuen aipatutako hitzaldia. Bertan "Merkataritza, ez laguntza" lemapean, Bidezko Merkataritzak erlazio ekonomiko eta komertzial justuen sustaketa bultzatzen duela aipatu zuen Ibonek. Horrez gain, gai honi lotutako kanpaina ere aurrera eramane zuen Misio taldeak.

Marti

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 01 72

Bere bezeroen zerbitzura

ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik
zura zerbitzuan

Tel.: 943 79 88 95

MANTEKA ANAIK

Mobiliario ARENAZA

• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



MAPFRE

Aseguroak

Errekabarren, 3
Tel.: 943 77 11 76

PROTAGONISTAK



**Soledad
Fernández**

Leonen jaioa, herriko inguruak ondo ezagutzen ditu 85 urteko emakume honek. Udan kurtzebarri eta Degurixaraino joaten da oinez.



Mikel Bengoa

Mikel Eskozian dago ingelesa ikasten eta master bat egin gura du bertan. Gero etxera bueltatu nahi du, hura ez baita bere lekua.



Murrukixok bazkideei deia

Murrukixoko mendizale elkarteak musutruk lan egiteko jendea behar zuela ikusita deia bialdu zien bere bazkideei. Mendiaz lotutako ekintzak antolatzeko eta lan egiteko prest zegoen jendearen laguntza eskatzen zuten elkarteak.

Deia herritar guztiei lu-

zatu zitzairen baina, batez ere, mendi elkarteko bazkideei.

Hala ere, elkarteko kideak prest azaldu ziren aktibitate batzuk mantentzeko, Kurtzebarri eguna, piraguismoa, trabesiako eskia, diapositiba proiektzioak...

"Taichian tentsioa kentzea da garrantzitsua"

Valentin Zurbano
Taichiko irakaslea



"Sei mila biztanle dituen herria Euskal xake ligan egotea nahiko bitxia da"

Fran Miguel
Xake jokalaria

MOTZEAN

■ Urtarrilaren 8an karate eskolako neska-mutilek **karateko erakusketa** egin zuten kiroletxean, karatea zer den erakusteko helburuaz.

■ **Iñurrategi anaiak** Torre del Paine igo barik itzuli ziren etxera Chileko Patagoniatik. Eguraldi txararren ondorioz, ezin izan zuten helburua bete.

■ **Kirol mendikuntza zerbitzua** martxan jarri zuen kiroletxeak Deba Garaiko Mankomunitatearen laguntzarekin.

■ **Udako preferenteak** garaipenarekin amaitu zuen ligako azken partidua. Ceciagaren mutilek, gainera, gol ugari sartu zituzten, Uda 5 Beti Ona 1.

Txistuak • Txaloak

Urteko lehen txistua kortexa zebrabide edo espaloi gainean uzteko ohiturak eraman zuen. Bigarrena ere txistua izan zen, kasu honetan, Beroa lantegiak botatako keak jaso zuen.

sukaldeko altzarien eta horma armairuen fabrika

Super
Armeko

- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6. pabilioia.
ARRASATE Tel.: 943 71 25 08

Bereziki: Harategia
Urdaitegia
Fruitategia

IMANOL
JANARI DENDA

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83

MOTZEAN

■ GALARTZAN BATZARRA

Gaztetxearen inguruko hausnarketa egiteko, 35 bat lagun batu ziren Galartzan. Aztertu zituzten gaien artean, gaztetxearen funtzionamendua, gestioa eta finantzaketa egon ziren.

■ INFORMAZIO ETA DOKUMENTAZIO ZENTRUA

Otsailaren 2an Almeneko informazio eta dokumentazio zentrua inauguratu zen. Zentru horrek hainbat zerbitzu eskainiko die ikasle eta irakasleei: kontsultak egiteko liburuak, CDak, bideoak, internetera sarbidea, e.a.

■ LEHIAKETAN SARITUA

Xabier Altubek Bergarako amodiozko gutunen VIII. lehiaketan irakurle gazteen saria jaso zuen. Epaimahai gaztearen iritziz, orijinala eta polita izan zen Xabierren amodiozko gutuna.

■ ANTZERKI ASTEA

Kurtzebarri eskolak antzerki astea ospatu zuen otsailaren 14tik 17ra bitartean. Dantzak, antzerkiak, abestiak, txo-xongiloak eta beste hainbat ekintza burutu ziren.

1.143 milioiko aurrekontua onartu zen 2000. urterako

Otsailaren 7an egindako bilkuran 2000. urterako aurrekontuak onartu ziren, Maria Rosario PPko zinegotziaren abstentzioarekin. PSEko Iñaki Pierruges, barrez, ez zen agertu.

Orotara 1.143 milioi pezetako kopurua onartu zen aurtengo aurrekontuetan. Horrez gain, datozen lau urteetan 1.200-1.500 milioi inguruko inbertsioak egin nahi zirela ere adierazi zen; urtero 400 milioi inguru gastatuz. Urterako defizita, barrez, 176 milioitakoa iza-

tea aurrikusi zen.

Aurrekontuez gain, beste hiru puntu ere onartu ziren. Urtero legez, Eskoriatza eta Aretxabaletako udalek, kirola eskolan lantzeko Foru Aldundiaz hitzarmena sinatzea, batetik. Aretxabaleta eta Eskoriatzako bake epaitetik idazkaritzak elkarlanean aritzeko bestetik, eta azkenik, Arabako eta Gipuzkoako mugarrak ikusi eta berregiteko batzordea izendatu zen, bertako lurren jabeak mugarrak mugituta zeudela kexatu baitziren.



KANPO ZORRA DEUZETATZEKO KONTSULTA

Aretxabaletako eta Arrasateko kanpo zorra deuzestatzearen aldeko herri kontsulta aurkeztu zen. Ekimen hau Arrasateko hainbat gobernuz kanpoko erakundek eta Aretxabaletako Hiruatz taldeak bultzatu zuten.

TXAKUR KAKAK

Herriko hainbat tokitan txakurren kakak pilatzen zirela ikusita, Udalak txakurren kakak jasotzeko kanpaina jarri zuen martxan. Herriko atarietan bandoa jarri zuen, eta udalak txakur kakak jasotzeko zerbitzua eskainiko zuela jakinarazi zen bertan.

ARKARAZOKO ELIZA

Izurieta eta Koruetakoaren ondoren Arkarazoko eliza konpondu zen. Elizako zoru egoera txarrean zegoen eta baldosak jarri ziren lurrean.

Ama Birgina berriaren bedeinkapena San Blasen

Urtero legez, otsailaren 3an San Blas eguna ospatu zen Apotza-Etxebarriko Sailuenteko ermitan. Eguraldi onak lagunduta ume, gazte eta nagusi ugari bildu zen bertan. Jakien bedeinkapenez gain, Jose Ugartek egindako Sailuenteko egurrezko Andra Mari berria bedeinkatu zen.



“ A R I N S A ”

Aretxabaletako industrialdea S.A.

Basabe poligonoa “EO-10”
Tel.: 943 79 62 80/Fax: 943 79 76 19

JOSU
HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte, ☎ 943 77 03 08

Maritxu
Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53

PROTAGONISTAK



Gazte asanblada

Gaztetxeari etorkizun egokia eman asmoz gazte asanbladak hainbat bilera egin zituen. Horietako bat Galartzako dorretxean.



Key taldea

Maketazioa eta diseinua lantzen du key taldeak. Aretxagazetaren diseinu aldaketa ere, talde honek egindakoa da.



Dorletako Ama abian

Otsailaren 19an Dorletako Ama txirrindulari eskolak denboraldiko aurkezpen ekitaldia egin zuen Hotel Mondragonen.

Aurtengo denboraldian 25 txirrindulari aurkeztu zituen taldeak, Fagor, JMA eta Arrasate kirolak enpresen babesean. Txirrindula-

riak aurkezteaz gain, zuzendaritza batzordea ere aurkeztu zen. Lehendakaria Javier Lazkano; lehendakari ordea, Angel Blazquez, eta idazkaria, Amparo Lopez.

Txirrindularien debuta, bestalde, hurrengo asteburuan izan zen.

"Txirrindularitzarekiko zaletasuna gaztetxoetan suspertu behar da"

Asier Bengoa
Dorletako Ama txirrindulari taldeko entrenatzailea



"Pilotaria profesionalizatu egin da, soldata eta baldintza duinekin"

Manolo Zubillaga
Asegarceko publizitate arduraduna

MOTZEAN

■ **Iban Sastrek** bere debuta egin zuen profesio-nalean. Luis Fernándezek zuzentzen duen Festina taldearekin.

■ **Arlutz xake taldea** laugarren gelditu zen Euskal Xake ligan. Taldearen hasierako helburua maila mantentzea zen, eta azkenean, 12 taldetatik laugarren postuan amaitzea lortu zuten.

■ **Lehen mailako kadeteek** 8-0ko emaitzaz irabazi zuten Euskalduna taldearen aurka.

■ **Ulma-Cegasa** txirrindulari taldeak bere aurkezpena egin zuen otsailean. **Asier Atxa** taldekideak bere bigarren urtea hasi zuen taldean.

Txistuak • Txaloak

Araba Ibilbidea kalean Deba ibaia inguratzen duen pasealeku berriak txaloa jaso zuen. Hilabeteko bigarren aipamena, barrez, lorategientzat eta hauek zaintzen dituztenentzat izan zen.

GEMES

- Depilazio elektrikoa
- Makillaje permanentea
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18
Aretxabaleta

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tel.: 943 77 13 57

Leibar

arrandegia

Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79
ARETXABAleta



MOTZEAN

■ GOIENKARIA

Goienkaria aldizkariak, Goiena kooperatibak sortu-tako Deba Goieneko aldizkariak lehenengo alea kale-ratu zuen martxoaren 13an. Ale berezia hauteskundein ingurukoak izan zen.

■ KANPO ZORRA

Kanpo zorrari buruzko kontsulta egin zen martxoaren 19an. 866 lagunek hartu zuen parte kale iketan, Aretxabaletako biztanleria-ren % 17ak, hain zuzen.

■ TRUKE PROGRAMA

Truke programa martxan jarri zuen Mundukide fundazioak. Ekimen horren helburua, garapen komunitarioko esperientzien trukaketa bultzatzea izan zen.

■ BBVA BANKETXEA ERRE

Durana kalean dagoen BBVA banketxea erre zuten ezezagun batzuek martxoaren 24tik 25era bitarteko gauean. Banketxea txikituta gelditu zen.

■ AZBEK SARIA

Seguritateko giltza elektronikoa asmatu eta merkantuan jartzeagatik saria jaso zuen Azbek.

Sekulako aratuste domeka

Aratusteak etorri orduko joan ziren, ez ordea gozatu barik. Eguraldia lagun izanda sekulako giroa izan zen goizetik gauera. Mozorro orijinalik ere ez zen faltatu. Zirkoak ikuskizun ugari eskaini zituen, paila-


so, mago... Erromatarrak gora eta behera ibili ziren, Zesar Augusto buru zutela. Giraldillak, platanoak, momiak, kalegarbitzaileak, drag queen-ak... norbait falta ete zen Aretxabaletako kaleetan?



Lehen haize errotak Elgean

Gipuzkoa eta Araba arteko mugan lehenengo haize errotak jarri zituzten. Martxoaren 10ean jadanik bi haize errota ikus zitezkeen Larrino auzotik.

Abantailak besterik ez dituela izango dioten parke eoliko horrek haserrea ere sortarazi zuen, bai talde ekologista bai lurren jabeen artean.

ETXEBIZITZEK GUREAN
IGOERARIK HAUNDIENA

Foru Aldundiko Hazienda sailak, 1999ko eta 2000ko urtarrileko etxebizitzaren katastro balioen artean konparaketa egin zuen, eta azterketa horren arabera Donostialdeko eta Deba Goieneko etxebizitzak izan dira Gipuzkoa mailan igoera haundiena izan dutenak.

Aretxabaletakoek, esaterako, % 54,9ko igoera izan zuten, bailarako igoerarik haundiena.

Datu bilketa horren arabera, Otalora kaleko 82 m²ko etxebizitza batek 1999an, ia 13 milioi balio zituen, 2000. urtean, barrez, ia 20 milioi. Urtebetean izugarrikoa izan da, beraz, igoera.

**San Migel
erretegia**

Apotza auzoa, 23
Eskoriatza • 943 71 48 71

DOIKALSE
**Elektroerosio
lanak**

Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 82 44



Lubia
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABAleta
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE

PROTAGONISTAK



Ibon Antero

Hiruatzeko kidea da eta kanpo zorra deuseztatzearen aldeko herri kontsultan aritu zen.



Diego Martiartu

"Hamairu eta bat" liburua kaleratzeaz gain, Putz aldizkariko lan taldea gidatzen du.

Karatekak lehen torneora

Herriko hamabost karatekek, Oñatin egin zen V. Oñati Hiria karate torneoan hartu zuten parte. Kirol ekitaldian Arrasate, Bergara, Oñati eta Aretxabaleako karatekez gain, Zaragozakoak ere izan ziren. Aretxabaleatik joandako

partehartzaileek lan txukuna egin zuten, horien artean Alexander Justel 2. postuan sailkatu zen. Horrez gain, Kerman Colino, Miriam Santateresa, Josu Cid, Erik Justel eta Odei Vazquez karatekak ere fin aritu ziren.



"Bizikletan ibiltzea droga bat da niretzat, droga osasungarria"

Candido Perez
Zikloturista taldeko zuzendaria



"Sei-zortzi ordu bitarteko martxa izango da herrian antolatuko duguna"

Jesus Mari Herrasti
Martxa zaletua

MOTZEAN

■ Martxoaren 5ean denboraldiari ongi etorria egin zioten **zikloturistek**. Txirrinduaren gainean jarri aurretik Dorletako Ama zaindariaentzat lore eskaintza egin zuten.

■ **Joseba Larrinagak** Portugalen hilaren 18 eta 19an egin ziren elbarri-tuentzako munduko kross txapelketan hartu zuen parte. Zazpigarren postuan bukatu zuen proban.

■ **Preferenteak Segura** taldearen aurka binakako berdinketa lortu zuen. Jon Ander eta Erikok sartutako golei esker UDAK etxean berdintzea lortu zuen. Horrela, hamabigarren postua eskuratu zuen talde atxabaltarrak sailkapen orokorrean.

Txistuak • Txaloak

Txakurren kakak jasotzeko udalak ateratako bandoak txaloa jaso zuen. Bestetik, txistua udaleko zinegotzia den, baina sekula plenoetara agertzen ez den PSEko zinegotzia den Iñaki Pierrugesentzat izan zen.



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Zorionak eta urte berri on!



Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

MOTZEAN

■ HIRUATXEKO TXORIAK BABESTU

Hiruataxen bizi diren, eta balore ekologiko haundia duten hegaztiak babestea onartu zuen Udalak hilaren 13ko plenoan.

■ ELGEAKO PARKE EOLIKOAREN AURKA

Elgeako parke eolikoaren aurkako manifestazioa egin zen apirilaren 16an. Protesta ekintzan Eskoriaztatik irten eta Aretxabaleako plazaraino etorri zen hogeiko taldetxo bat.

■ LITERATUR ASTEA

Apirileko lehenengo astean literatur astea ospatu zuten Kurtzebarri eskolan. Liburuekin lotutako hainbat ekintzez gozatze-ko aukera izan zen: irakur maratoia, antzerkiak...

■ ARIZMENDIK

LIBURUA KALERATU

"Lanbide Heziketa Deba goienan" gida liburua aurkeztu zuen Arizmendi Kooperatibak prentsaurreko batean. Liburu horrek, 2000-2001 ikas-turterako Deba Goienak eskaintzen dituen heziketa zikloen berri ematea du helburu.

Aberri egun bateratua

Aberri egun bateratuak zapo goxoa utzi zuen herrian apirilaren 23an. Ikurriñari egin zitzaion agurra izan zen eguneko ekitaldi nagusia, eta ondoren, udalbiltzak ateratako komunikatua irakurri zuen alkateak. Lehenengo aberri egun

horri bukaera emateko bazkaria egin zuten Matikuan 25 bat lagunek.

Egun horretan, bestalde, euskal nortasun agiria egiteko aukera egon zen, eta 20tik gora lagun animatu zen aipatutako Agiria ateratzera.



Basoa gertu-gertutik

Apirileko lehen astebukaeran II. basogintza topaketak ospatu ziren herrian. Eguakotxean jardunaldi teknikoak izan zen Zaraia zineman. Zapatuan, barrez, baso azoka egin zen Urkulun. Eguraldi onak, jende ugari batu zuen Urkulun ikuskizunak ikustera.



GOIENARI BAIETZA EMAN ZION LORAMENDIK

Loramendi eta Aretxabaleako komunikabideak-Loramendi elkarteak apirilaren 18an egindako batzarrean, bazkideek baietza eman zioten Goiena kooperatiban sartzeari. Kooperatiba elkar-te horretan Loramendi sartzea onartu zen. Hiru ordezkari izango ditu Loramendik bertan eta horietatik bi Aretxabaleako komunikabideak Loramendi elkartearenak izango dira. Atxabalta telebistako ekipamendua Goienari uztea ere adostu zen. Horrekin batera Atxabalta telebistari agur esan genion hile horretan. Era berean, AKLko lankideak Goienako partaide izatera pasatu ziren eta Goitb telebistan lanean ekin ziren Amagoia Lasagabaster kazetaria eta Haritz Altube Gatzako teknikoa.

PAGALDAI

Opari denda
Lurrindegia

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak eta
mortzilak

Durana, 9
Tel.: 943 79 19 79

MAITE
ileapaindegia

Sarasate, ☎ 943 79 59 05
ARETXABALETA

HAURRAK



Umeendako
moda

Lezama merkatal
zentrua, 15
Tel.: 943 77 14 86
ARETXABALETA

Aretxabaleta Okindegia

Loramendi, 6 ☎ 943 77 17 19 • Basabe, 2 ☎ 943 77 00 81



Zorionak

Gertu

Etxeko janari gertatua
baita enkarguz ere

Etxeko berezitasuna:
bakailaoa

Zorionak
eta
urte berri on!



MITARTE, 10
TEL.: 943 77 06 12



AITZORROTZ

elektronika

- **Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa**
- **Instalazio elektrikoak**
- **Atezain automatikoak**
- **Antena kolektiboak**
- **Informatika**



Aitzorrotz elektronikak Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABALETA

PROTAGONISTAK



Koldo Zuazo

Eibartarra da, euskal filologiako irakaslea eta euskalkiak defendatzen dituena. "Deba Ibarreko Euskeria" izeneko liburua kaleratu berri du.



Joseba Lopez de Armentia

Josebak zortzi urte daramatza liburute-gian lanean. Denetik egiten du bertan, liburuak erosi, sailkatu, dirulaguntzak eskatu, gidak egin, e.a.

Kemen taldea nagusi futbitoan

Kemen taldeak irabazi zuen neguan jokatu zen Arlutz futbito txapelketa. Finala Kemen eta Toblerrone taldeek jokatu zuten eta 7-2ko emaitzaz nagusitu ziren aurrenak. Golez betetako partidua izan zen, eta bertan bildu zen

ikuslegoak partidu politaz gozatzeko aukera izan zuen. Txapelketaren final aurrekoak, barrez, zapatuan jokatu ziren. Batetik, Kemen eta DDK taldeak aritu ziren elkarren aurka, eta bestetik, Hugo eta Toblerrone.



"Errugbiak ez du hemen futbolak bezainbesteko indarra, apalagoa da"

Aitor Etxenagusia
Arrasateko errugbi taldeko jokalaria



"Karatea kirola izateaz gain, arte martziala ere bada"

Miriam Santateresa
Karate ikaslea

MOTZEAN

■ **Elgoibartarrak** nagusi izan ziren pala txapelketan. Martin eta Oier Urigoitia izan ziren garaile, eta bigarren, Acero-Muruamendiaraz bikote bergararra gelditu zen. Edorta Antxia eta Gorka Madinabeitia atxabalta-rrek laugarren postuaz konformatu behar izan zuten.

■ Dorletako Ama txirridulari taldeko infantilek lan bikaina egin zuten Elgoibarren. **Jon Lete** laugarren postuan sartu zen eta **Eddy Perez** seigarren.

■ **Iñurrategi anaiek** eduz beteta aurkitu zuten Manasluko behe kanpamendua. Dena dela eguraldi ona zegoen mendi alde hartan.

Txistuak • Txaloak

Asensio komertzioak jaso zuen hile honetako txaloa, bere 50. urteurrenaren aipamena euskara hutsean egiteagatik. Txistua, barrez, kutzako kristala apurtu zuenarentzat edo zutenentzat izan zen.

Jose Mari
bodegoia

Eguneko menua

Nafarroa, 6
☎ 943 79 20 45
Aretxabaleta

IBARRA
ESTANKOA



PRENTSA ETA
IKASMATERIALA

Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77

REGIANDO

optika

Loramendi, 10
☎ 943 79 98 21

Jon Diaz
Harakina

Loramendi 1, • Tel: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

MOTZEAN

■ UDALETXEAN 35 ORDU

Udaletxeko langileek 35 orduko lan astea izatea onartu zen maiatzaren 15ean egindako plenoan. Erabakia aurten jarriko da indarrean eta bi urterako izango da.

■ GOSE GREBARI AMAIERA

Euskal presoak Euskal Herrira plataformak aste bukaeretak greba herrikoari bukaera eman zion plazan kontzentrazioa eginez. Gose greba lau astebukaeretan zehar luzatu zen.

■ GOITB MARTXAN

Goitb, Deba Goienero telebista martxan jarri zen maiatzean. Hasiera batean, Arrasate, Aramaio, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagako herritarrek ikusi ahal izan zuten.

■ ARKARAZOKO ELIZAREN INAUGURAKETA

Hilaren 6an Arkarazoko San Millixan parrokia inauguratu zen. Konponketen artean, zorua berritzu eta aldare ondo txukundu zen.

Azoka Belorrietan maiatzetik aurrera

Ordura arte Gernika plazan egindako merkatua, Belorrieta kalera pasatu zen hil honetan. Orokorrean leku hobe zela adierazi zuten saltzaileek. Hala ere, alde negatibo moduan, neguan hotz haundiagoa egingo duela, eta kamioiak ez dau-

delako ondoraino gerturatzerik adierazi zuten.

Udaltzainek ere hainbat arazo dituzte leku berriaz. Izan ere, abisua eman arren, astelehen goizetan kotxeak aurkitzen dituzte merkatua jarri beharreko lekuan.



Giro aparta euskararen egunean

Eguraldia lagun giro bikaina sortu zen euskararen egunean. Bertara hurbildu zirenek ez zuten aspertzeko denborarik izan egun guztian zehar: bertsolariak, trikitilariak, bazkari herrikoia, jokuak, dantza eta beste horrenbestek alaitu zuten eguna.



COPRECI KOOPERATIBAK ISO 14001 ZIURTAGIRIA JASO ZUEN

AENOREk ingurumena zaindu eta errespetatzea-
gatik ISO 14001 ziurtagi-
ria eman zion Copreciri.
Estatu espainiarrean
Coprecik lan egiten duen
sektorean eman den lehe-
nengo ziurtagiria izan zen
honako hau.

Iaz ere beste sari bat jaso
zuen Coprecik: Eusko
Jaurlaritzako industria sai-
lak emandako kalitatezko
Zilarrezko Q-a.
Aurrera begira atmosfera-
ko igorpenak %60ko por-
tzentzian gutxitzea helbu-
ru du Coprecik, gaur egun
%25era murriztera heldu
dela kontuan izanik.
Horretarako disolbatzaile-
ak erabiltzen dituzten
makinen ordez, ur eta
xaboi bidez garbitzen
diren makinak eta ur
beroz koipea kentzen
zaien makinak erabiltzen
hasita dago.

Gabon
zoriontsuak

AZKARATE AROSZTEGIA

Tailerra: Mahasterreka, 18
BERGARA
943 76 47 19
ARETXABALETA
943 77 01 24



TXILARRA

ELIKADURA BEREZIA

Durana, 35 - Tfnoa: 943 79 10 15
Loramendi, 9 - Tfnoa: 943 79 44 28

PROTAGONISTAK



Joxe Olabe

Parrokiako diru kontuak eramaten ditu Joxek orain 20 urtetatik hona. Horrez gain, auzoetako elizak konpontzeko dirua lortzeaz ere arduratzen da.



Edorta Mendieta

Martxoaz geroztik Aretxabaletako komunikabideak elkarteko zuzendari berria da Edorta Mendieta.

Hurtado krossean garaile


Otala zelaiko krossak 70 partehartzaitetik gora bildu zituen Urkuluko urtegiari maiatzeko lehenengo domekan. Manu Hurtado beasaindarra izan zen garailea 43'26" 36 segunduko denbora eginez. Irabazlearekin batera David Alon-

so donostiarra helmugaratu zen, eta hirugarrena Ramon Jausoro izan zen. Emakumezkoetan lehena Eli Martinez legazpiarra izan zen. Beteranoetan, Patxi Sanchez zarauztarra eta juniorretan Aitor Delgado Elorriokoa.



"500 km inguru egin genituen bizikletan Meridatik Astorgara bitartean"

Maite Ortiz de Zarate
Bizikleta zaletua



" Mendi martxa bi urtean behin antolatzeko asmoa dugu"

Goio Arrieta
I. mendi martxako antolatzailea

MOTZEAN

■ **Udako kadeteek** ohorezko kadete mailara igotzen zuten. Santi Moralesek entrenatzen duen taldea 3-2 nagusitu zitzaion Añorgari, eta garaipenaren ondorioz, taldeak ohorezko mailara igotzea lortu zuen.

■ **Udako talde gehienek** maiatzean amaitu zuten denboraldia. Iñaki Ceciagak Preferente taldeko entrenatzaileak bere azken partidua zuzendu zuen. Taldeak sailkapenean erdi inguruan amaitu zuen.

■ **Almeneko infantilek** Gipuzkoako kopa irabazi zuten. Finala Almen Kostkas Danak taldeek jokatu zuten Arizkorretan eta emaitza 5-1ekoa izan zen Almenekoen alde.

Txistuak • Txaloak

Aberri eguna antolatu zutenek merezitako txaloa jaso zuten. Behingoz alderdikeria alde batera utzi zen. Txistua, bestalde, herria goitik behera pintadekin bete duten tzaiztat izan zen.

Aretxabaletako



Gabon zoriontsuak
eta
Urte Berri On guztioi



PROTAGONISTAK



Amaia Otxoa

Umeak mundura ekartea da bere lana eta gustura egiten du. Lan horretan hamabi urte egin ditu dagoeneko.




Mikel Arroiabe

Mikelek, Oskar mondrauetarrarekin batera Ubarroi taldea osatzen du. Urkuluko hegaztiak aztertzen dituzte.

Mendi martxa arrakastatsua

Ekainaren 11n egin zen Aretxabaletako I. mendi martxa. Eguraldiak lagun-
du ez bazuen ere, bilduta-
ko jendeak giroa berehala
berotu zuen. Orotara 292 parte-hartzai-
le hurbildu ziren herriko
plazara, horietatik 96 atxa-

baltarrak. Gainontzeoak
leku askotatik etorri ziren,
Markina, Zarautz, Irun,
Gasteiz, Elorrio eta Ma-
drilgo lagun bat ere bai.
Guztiek antolatzaileen la-
na goraiatu zuten, janaria
gura beste eta nekatu arte
egon baitzen.



"Futbola uzteko erabakia hartu dut"

Jon Ander Larrinaga
Udako jokalaria



"Hiru haundiak proba oso gogorra da"

Jose Javier Irure
Mendizalea

MOTZEAN

■ Donostian ospatu zen elbarrituen nazioarteko igeriketa txapelketan hiru domina lortu zituzten hiru atxabaltarrek. **Iker Arejolaleibar, Iñaki Iturbe eta Juan Carlos Barkerok** domina bana ekarri zuten etxera.

■ Atxabaltako bost mendizale Pakistan aldera abiatu ziren ekainaren 10ean. **Iñurategi anaiez** gain, **Jesus Arregi, Eneka Guenetxea eta Luis Urkiak** osatutako espedizioa ere abiatu zen GIIa igotzeko helburuaz.

■ Esku pilota txapelketan kanpotarrak izan ziren garaile, Oñatiko **Argider eta Iban Isasti**, hain zuzen ere.

Txistuak • Txaloak

Naturak sarritan ikuski-zun bitxiak eskaintzen dizkigu. Kasu honetan txaloe Deba ibaiko ur oiloentzat izan zen. Naturarekin lotuta jarraituz, ekainean antolatu zen mendi martxak txaloe jaso zuen.

Lasai

Mirian Manteca
MASAJISTA

Lezama merkatal zentrua
Santa Kurtz, 24 etxabea
20550 Aretxabaleta

Masaje terapeutikoan
Posturen azterketa eta
egokitzean
diplomatu

Tel.: 943 77 04 34

IRIARTE

Umeen
denda
eta
lentzeria



Durana, 8 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 10 96



MOTZEAN

■ ARETXARTE MERKATARIEN ELKARTEA

Herriko merkataria bat eta Aretxarte izeneko elkarteak sortu zen. Elkarteak sortzearen arrazoia bate-ratasunak komertzio txiki-entzatzat ekartzen dituen abantailetan dago.

■ KIROLETXERAKO ENPRESA GARBITZAILEA

Udalak Cespa enpresari eman zion kiroletxea garbitzeko ardura. Beraz, orain artean kiroletxea gestionatzen duen familia ez du garbitasunaren ardurarik izango.

■ UDALEKU IREKIAK

Uztaila heltzeaz bat udaleku irekiak hasi ziren. Aurtengoan 3tik 12 urtera bitarteko 180 umek eman zuten izena eta ume hauekin 27 begirale aritu ziren, gehientsuenak 17 eta 20 urte bitartekoak.

■ SEBERIANO AYASTUY

Argentinan misiolari dagoen jesuita atxabaltarrak, Seberiano Ayastuyk, bere jaioterria bisitatu zuen. Argentinan proiektu berriak martxan jartzeko laguntza eske etorri zen, 86 urteko misiolaria.

Akordeoi orkestra Europara

Uztailaren 14an atera eta 25 arte Europa aldean ibili ziren akordeoi orkestrako kideak. Serbiako Kanzija herrian hiru kontzertu eman zituzten, ondoren Budapest eta Viena bisitatu eta Alemaniako bidea

hartu zuten gero. Serbian jaso zuten harrera izugarria izan zen eta ikusleek txalo eta txalo egiten zuten emandako kontzertuaren ondoren. Taldeki-deek ez dute ez bidaiak samur ahaztuko.



Euskal presoan alde martxan

Uztailaren 12an heldu zen presoan aldeko martxa herrira. Testiguak herriko kaleak gurutzatu zituen, 39 elkarte eta lagunak partaidetza. Testiguaren atzetik presoan aldeko aldarrikapena daraman pankarta eraman zen, horren atzetik herritar ugari batuz.



PORTASOLGO JAIK

PAGLEk beste behin ere Portasolgo jaiak antolatze-ko ardura hartu zuen. Ekin-tza ugari izan ziren, baina zoritxarrez eguraldiak ez zuen batere lagundu. Hala ere, jendea erruz inguratu zen Portasol aldera eta baita ekintzetan parte hartu ere.

GAZTETXEKO EGUNA

Uztaileko lehen zapatuak gazteteak antolatutako jaira hurbildu zituen herri-ko gazteak. Bazkarian 70 bat lagun egon ei ziren, eta ondoren, egin zituzten jokuetan parte hartze haundia izan zen.



Haizea

Zure gustoko giroa

Mitarte z/g
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 88 60

GUREA

taberna
jatetxea

Durana kalea
Tel.: 943 79 20 64

Jauregi
Okindegia

Otalora, 10
Tel.: 943 79 57 47
Aretxabaleta

PROTAGONISTAK



**Imanol
Galfarsoro**

Londreseko Euskal Kulturaren ikasketen nazioarteko I. jardunaldiak antolatu zituen Londresen bizi den Imanolek.



**Aitor San Migel
eta Saioa
Etxebarria**

Mexikoko Copezin lanean ari dira Aitor eta Saioa. Beren iritziz Euskal Herria bezalakorik ez ei dago.

Felixi agur beroa

Uztailaren 28an berri tristetia iritsi zitzaigun Karakorum-etik. Felix Iñurrategik bizitza galdu zuen, Gilko gailurra lortu eta beherantz zetorrela, mendian behera amildu zenean.

Familiako, lagun eta herritarrek agur beroa eskai-

ni zioten Felixi. Andra Mari eliza eta ingurua jendez gainezka egon zen, Felixi azken agurra emateko.

Bere gorpua Himalayan gelditu zen, "bere Himalayan". Agur esateko asti barik aldegin zuen 33 urteko mendizaleak.

Laster arte, Felix.



"Sidneyra begira jarrita ditut begiak"

Joseba Larrinaga
Atleta



**"Ondo moldatu gara aurten-
go txapelketa antolatzeko"**

German Arriola
Futbito txapelketako antolatzalea



MOTZEAN

■ **Pilotari atxabaltarrak**
hirugarren sailkatu ziren herri arteko pilota torneoan. Txapelketa bikaina egin zuten herriko pilotariek eta Soraluze gainditu ondoren, hirugarren postuari eutsi zioten.

■ **Jose Javier Barkero**
Frantziako Tolosa taldeak fitxatu zuen. Momentuz urtebeterako utzi dio Realak talde frantziarrari.

■ **Candido Perezek**
Quebrantahuesos klasika famatua hamar aldiz jarraian egin duelako sari berezia jaso zuen. Saria eman ziona Miguel Indurain bera izan zen, eta atarrabiakoak proba hori hamar aldiz egiteko balorea behar zela esan zion Candidori.

Txistuak • Txaloak

Txirrindulariek beti ere ez dituzte trafiko arauak errespetatzen. Semaforoa gorri zegoenean pasatzearen txistua eurek eraman zuten. Bestalde, txistua Eskoriatzako industrialdea egiteko botatako arbolon kontra joan zen.



**Taberna
Berri
jaketxea**

Durana, 26 •
ARETXABAETA

**Dorleta
taberna**

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
☎ 943 79 94 15

ESKORIATZA
Bazkari
eta
afariak

Tfno 714345
ERRETEGIA
MENDIOLA

Astelehenetan itxita
ESKORIATZA

Gure aldizkarian 2000. urtean zehar publizitatea egin duten bezeroak

Aldibi autoak	Dorleta taberna	Lasai, Miriam Manteca
Amets taberna	Eguzkigrafi inprimategia	Lauxitta taberna
Amuebladora Mondragonesa	Errekabarren merkatal zentrua	Leibar arrandegia
Andra Mari aholkularitza	Esko sport	Leintz Udal euskaltegia
Angelines autozerbitzua	Etxabe harategia	Lie opari denda
Arbulo harategia	Euskadiko kutxa	Loramendi kirolak
Areano nekazalturismoa	Eusko Jaurlaritza	Maite ileapaindegia
Aretxabaleta iturgintza	Express akeitegia	Maite Aguilera
Aretxabaleta okindegia	Ezkutu taberna	Mapfre aseguruak
Aretxabaletako EA	Farma bizi parafarmazia	Maritxu mertzeria
Aretxabaletako EAJ/PNV	Felix Pagaldai pentsuak	Martin erloju denda
Aretxabaletako EH	Ford Mugarri	Matikua jatetxea
Aretxabaletako industrialdea	Garbitu garbiketak	Meca tailerrak
Aretxabaletako Udala	Garbitze tindategia	Memesa industri hornidurak
Aretxarte merkatarik elkartea	Gemes edertze aretoa	Mendiola erretegia
Aretz taberna	Gertu janari denda	Miguel Altuna institutua
Argi-plastik leihoak	Gipuzkoako Foru Aldundia	Miren & Zuriñe bitxitegia
Arizmendi kooperatiba	Gipuzkoako Kutxa	Mitartegarai jatetxea
Arkauz altzariak	Gizaintza	Mobiliario Arenaza
Arlutz taberna	Goyaran jatetxea	Nerian loradenda
Arrasate-Aretxabaleta institutua	Gurea jatetxea	Okendo kirolak
Arrasate hogar	Haizea taberna	Olaben
Arritzeko S.L.	Halcon bidaiak	Oskar garajea
Artano taberna	Haurrak umeentzako moda	Pagaldai opari denda
Asensio jantxidenda	Hotel Mondragon	Pausoka haur eskola
Azkarate aroztegia	Ibai-arte	San Migel erretegia
Basabe jatetxea	Ibarra estankoa	Santa Rita haur eskola
Baster alde jatetxea	Iber loteria/paperdenda	Taberna Berri jatetxea
Deba Garaia inbueble agentzia	Imanol janari denda	Talleres Norte/Opel
Begi ondo optika	Iriarte umeen denda	Txilarra belar denda
Beiralan kristaldegia	Izotz taberna	Udalatx inbiliaria
Bengoa urdaitegia	J.J. iturgintza	Urbaltz taberna
Berango sukaldeko altzariak	Jauregi okindegia	Urkiola argazki denda
Berbetan hizkuntzak	Jon harategia	Urkulu industria hornikuntzak
Bikain akademia	Jose Mari bodegoia	Zaraia taberna
Cim hizkuntzak	Josu harategia	Zenbaki aholkularitza
Construlan Arquero	Kurtzebarri eskola	Zubia oinetakoak
Consum Eroski	L-10 ileapaindegia	Zubiaga bitxitegia
Deba Garaiko Mankomunitatea	Larringan gidari eskola	Zutabe
Doikalse elektroerosio lanak	Lasagabaster jantxidenda	

**Zorionak eta
urte berri on guztioi!**

Eskerrik asko guztioi



Lau egun jaixetan

Abuztuan Andramaixak helzteaz bat, lau egunetako jai giroan murgildu zen herria. Aurtengo jaien berezitasunik aipatzekotan, beharbada, jai batzordeak eginiko lana izan zen. Ondorioz, hirugarren egunak urte batzuetako giroa eta alaitasuna bereganatu zuen.

Lau egunetan zehar, bestalde, adin guztietako jendearentzako egitarau zabala izan genuen, antzerkiak, umeentzako parkeak, zezenak, kontzertua... Herriko Serial Number taldeak, gainera, jaietan egin zuen bere aurkezpen ofiziala jendeaurrean.



■ Kontuz kontuz, arrautzekin.



■ Norbait larri ibili zen zezenaren adarretan



■ "Serial Number" talde atxabaltarrak harrituta utzi zituen entzuleak.



■ Berdin jantzitako koadrilak nagusi izan ziren hirugarrenean.

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.

Mitarte, 23
Tel.: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

*Etxabe
harategia*

Durana 4
☎ 943 79 16 61



**FELIX
PAGALDAY**

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea
☎ 943 77 00 33/79 42 56

Frutan eta
txarkuterian
espezialitatea

Angelines
AUTOZERBITZUA

Mitarte, 16 • 943 79 61 42

MOTZEAN

■ AGUR ANDEREINO
ARANTXA

Hilaren 24an Donostian hil zen Arantxa Iza Kurtzebarri eskolako andereño ohia. Arantxa Loramendi ikastolako lehenengo andereñoa izatez gain, 25 urte egin zituen bertan.

■ ETXEZ ETXEKO
LAGUNTZA ZERBITZUA

Arrasateko Atsedean enpresa kontratatu zen etxez etxe laguntza zerbitzua eskaintzeko. Hemendik aurrera, beraz, Udala ez da zeregin horretaz zuzenean arduratuko.

■ BERRIKUNTZAK
LIBURUTEGIAN

Liburutegiko informazio guztia ordenagailu bidez erabiltzeko moduan jarri zen eta baita bazkide txartel elektronikoa ere. Berrikuntza horrez gain, haurren txokoa ere jarri zen.

■ PARROKIKO
KONPONKETA

Andre Mari parrokian berrikuntza lanak hasi ziren. Kanpoaldea berriztu zen irailan, baina lanak datozen urteko maiatzerarte luzatuko dira.

Plan estrategikoaren lehen pausoak

Herriko beharrak zeintzuk diren aztertu eta herriko garapen ekonomikoa eta soziala bultzatuko duen plan estrategikoan parte hartuko duten talde garrantzitsuenak osatu ziren: kontseilu orokorra eta aholku-

laria. Talde horietan, herriko kultur, kirol, ekonomia, sindikatu, osasun, heziketa eta beste hainbat sektore-tako ordezkariak izango dira. Atxabaltarrek herriarendako egindako plana izatea gura da.

SAN MIGELAK BASERRI
MOZORROAZ

Aurten San Migel egunez hasi ziren jaiak, hilaren 29an. Golden Apple Quartet taldeak alaitu zuen eguakotx gaua eta jendea erruz pilatu zen plazan laukote horren ikuskizunaz gozatzeraz.

Zapatua baserritar jantzita heldu zitzaigun. Kaleak baserritar jantziz bete ziren, antolatutako ekin-tzei giro borobila emanaz. Bazkaritan sekula baino jende gehiago pilatu zen marmitakoa probatzera. Arraltsaldean Juanito Urreta mendizaleari egin zitzaion omenaldia. Pozik baina hunkiturik jaso zuen Juanitok merezitako omenaldia, Beinke-Loramendi dantzaren erdian.

Herria dantzariz josita, baina ikusle gutxi

Dantzari haurren egunean hainbat herritako dantzariak hurbildu ziren gurera. Aurten aurreko urteetan baino gutxiago izan ziren, hala ere, familia gutxi hartu zituen dantzariak etxean bazkaltzera. Antolatzaileak kezu ziren horregatik, eta egun hau desagertu egingo ete zen beldur ziren.



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51

Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:
Lyonel Arquero

Dekorazioa:
Soraya Arquero

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Horma armairuak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiak
- ◆ Beirate "fusing"ean kalitate handia

Herriko plaza, 8 behea
☎ 943 79 81 78 / 6700997274

PROTAGONISTAK



**Saioa Arando
Aitziber Arrese
Arantzazu Arroiabe
Mikel Iturbe**

Lau lagun hauek Kuban izan ziren udan. Hango bizimodua eza-gutzera joan ziren, eta borondatezko lanean aritu ziren.



Aita Migel Lete

Sei urte egin ditu Kolonbian misiolari eta datozen urteetan ere bertan lanean jarraitzeko asmoa du Aita Migel misiolariak.

Futbol denboraldiari hasiera


Udako preferenteak irailaren 10ean eman zion hasiera denboraldi berriari. Enrique Nietoren mutilek kanpoan jokatu zuten Urola taldearen aurka. Emaitza kanpokoen aldekoa izan zen, Urola 2 Uda 0.

Gainontzeko neurketak ere galdu egin zituzten herriko taldeek. Horien artean Euskal ligako jubenilek 4-0 galdu zuten Loyola Indautxuren aurka. Lehen jubenilen emaitza, barrez, Uda-Almen 0 Segura 2 izan zen.



"Goitibehera gainean zoazenean, ez zara arriskuaz jabetzen"

Mikel Gomez
Goitibehera zaletua



"Herrian egiten ari den plan estrategikoak kirol arloko proiektuak ere landuko ditu"

Jose Mari Armentia
kirol zinegotzia



MOTZEAN

■ **San Migel txirrindulari** lasterketak udako kriteriumarekin bat egin zuen hilaren 24an. Ondorioz bi proba egin ziren, goizeko proba Mendiolan bukatu zen eta arratsaldekoa erlojuz kontrakoa Duranan. Irabazle nagusia Joseba Zumeta izan zen.

■ **Joseba Larrinaga** Segovian izan zen joku paraolimpikoetarako entrenatzen.

■ **Mikel Gomez eta Iñigo Lizarralde** Euskal Herriko goitibehera txapelketako irabazleak izan ziren.

■ **Kirolletxeak** hainbat aldatetekin hasi zuen ikasturte berria. Ordutegia zabaltzeaz gain, txartel elektronikoa martxan jarri zen.

Txistuak • Txaloak

Txalo eta txistu artean pasa zen iraila. Txalo parrada jaso zuena Kurtzebarri eguneko antolaketa lana izan zen. Txistuen txokoa Durana eta Mitarte kalean orduz kanpo ibiltzen diren motorzale eta kotxe gidariek jaso zuten.



- BILTEGI HOZKAILUA
- HARAGI PRODUKTOAK
- INDIOILARRA ZATITUTA
- UNTXIAK
- TXERRIKIAK
- IZOZTUAK
- BASERRIKO OILASKOAK

Basabe Poligonoa A-15
☎ 943 79 34 28 • Faxa: 943 79 34 28

**ARETXABALETA
ITURGINTZA**

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETA



**Lurrindegia
Opari-denda**

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

MOTZEAN

■ ARETXAGAZETAK 200 ALE

Aretxabaletako komunikabideak Loramendi elkarteak 200. alea kaleratu zuen urriaren 26an. Aldizkariak zortzi urteko historia eta hainbat iritzi kaleratu zituen. Egutegi txiki bat ere kaleratu zuen bazkide eta bezeroentzat.

■ KEPA URRA ESPETXEZ ALDATU

Madrilgo Alcala Mecotik Galiziako Teixe espetxera aldatu zuten Kepa Urria urriaren 23an. Hasieran behintza guztiz inkomunikaturik egon zen, ez bisita, ez eskutitz eta telefono dei barik.

■ ORDENANTZA FISKALAK IGO

Ordenantza fiskalak % 3,5 igotzea onartu zen urriaren 16an egindako plenean. Igoera hori urak, zaborrak, etxebizitzaren zergak, obretako udal zergek eta dendariaren zergek izan zuten.

■ URKULU % 58AN

Urriaren 9an bere ahalmenaren % 58,71 an zegoen Urkuluko urtegia, 1999ko sasoi bereko datuekin konparatuz antzera.

Jubilatuen eguna jai giroan

Urrian ospatu zen jubilatuen egunak 255 lagun inguru batu zituen. Goizeko salda eta mezaren ostean, guztiak kiroletxean elkartu ziren bazkaritarako. Bapo bazkaldu eta kontu batzuk kontatzeko aukera ederra izan zen orduan.



Dantzaldia eta sariak ez ziren falta izan, batzuk, gainera, ederrak. Tenerifera bidaiaria Isaac de Diegori tokatu zitzaion, telebista M^a Dolores Osinagari eta mikroondasa Pilar Jausorori. Afaria, barrez, Teofila Sanchezentzat izan zen.

Festa giroa nagusi

Lagun ugari batu zituen urriaren 22an ospatu zen IV. gastronomi eta folklore jaialdiak. KIUBek antolatutako ekitaldiak dantza ikuskizunez gain, tripa betetzeko aukera ere eskaini zuen. Plazara hurbildu zirenak pozik etxeratu ziren, hainbat jaki dastatu ondoren.



HAURREN TXOKOA LIBURUTEGIAN

Udal liburutegian altzari berriak jartzeaz gain, hainbat konponketa ere egin ziren. Batetik, beheko lurra eta goiko pisuko gela bat margotu zen. Horrez gain, beheko pisuan argi berriak ipini eta ordenadoreendako altzariak erosi ziren. Berrikuntza nagusia haurrentzako txokoa izan zen. Bi sofa txiki eta mahai batek osatu zuten haurren txokoa. Donostiako Koldo Mitxelena liburutegiarekin, bestalde, hitzarmena sinatu zen, liburuaren arteko mailegua egiteko. Horrela, Koldo Mitxelenako liburuak internetean kontsultatu, eta norbaitek liburu bat gura izango balu, eskaera egin eta 24 orduren bueltan bertan izango luke.



Deba Garaiak
jai zoriontsuak opa
dizkizue

Maalako Errabala, 31 behea
Tel.: 943 77 13 02

ARETXABALETAN SALGAI

■ 50 m²ko pisua salgai. Guztiz berriua. Eguzkitsua eta leku onean.

■ 250 m²ko pisua salgai. Garajea (bi kotxe), sotanoa, txokoa, bodega, sukaldia, egongela, sala, terraza, jardina. Lau gela, hiru komun. Estrenatzeko. Prezio interesgarria.

DINAMIZATZAILE LANPOSTUA

Loramendi Euskara Elkarteak DINAMIZATZAILE bat behar du, batez ere merkataritza gaia lantzeko

Curriculum-a Aretxabaletako Udaletxe zaharrera bidali. Durana, 11, 20550 ARETXABALETA. Epea: abenduak 29.

loramendi
euskara elkarteak


Tel.: 943 77 09 70

PROTAGONISTAK



Juanito Urreta

Juanitok mendizale-tasunaren alde egin-dako lanagatik, omenaldi beroa jaso zuen San Migeletan.



Andoni Urzelai

Goitb bailarako telebistako zuzendaria da. Bere lana Goitb diseinatzea izango da batez ere.



Joseba bostgarren Sidneyn

Sidneyko joko paraolimpi-koetako maratoin bostgarren postua lortu zuen Joseba Larrinagak. Zoriontzeko eta txalotzeko lana egin zuen, eta jokoetako diploma ekarri zuen etxera, lehengo zortzi postuen artean helmugaratu zelako. Proba gogorra izan zela

azpimarratu zuen Josebak, eta konpetizioan aurkitu zuen maila benetan altua. Handik iritsi ostean, hausnarkerako garaia iritsi zen. Maila horretan jarraitzeko elbarrituen dirulaguntzak eta legeak aldatu egin beharko zirela adierazten zuen.

"Lan egiten duen jendea gustatzen zait inguruan"

Enrique Nieto
Preferenteko entrenatzailea



"Hegalekoak buruaz jokatu behar du, eta kanpotik golak sartzeko abilezia izan"

Jonan Eskibel
Eskubaloijokalaria

MOTZEAN

■ **Usurbilen garaipena**
Errasti anaiak. Urriaren 11n jokatu zen Usurbilgo pilota txapelketako finalean Errasti anaiak nagusi izan ziren, Astigarraga-Izagirre bikotea gainditu ondoren.

■ **Arlutz B** xake taldeak denboraldia hasi zuen. Lehen norgehiagokan Urretxuko Goierri taldearen aurka 3,5-0,5 galdu zuten.

■ **Murruxiko mendi elkartek** lokalez aldatu zuen, Durana kaleko 30 zenbakira. Lokal zaharreko edifizioa eraberritu artean bertan egongo direla aurreikusi zen.

■ Hamabi bikotek hasiera eman zien lehenengo frontenis txapelketari.

Txistuak • Txaloak

Hilabeteko txistua Larriñu eta Arientzako bideak konpontzeko arduraren duenarentzat izan zen. Txaloa, barrez, Gipuzkoako plazan dagoen umeentzako parkeak jaso zuen.



Eguberri
zoriontsua



MOTZEAN

■ INDUSTRIALDE
BATERATUA

Debagoienan industrialde bateratua sortzea onartu zuen Udalak hilaren 13an egin zen osoko bilkuran. Hiru industrialde daude bailaran, Bergara, Oñati-koa eta Aretxabaletakoa.

■ URKULUK NABARMEN
GORA

Azaroan euri asko egin zuenez, Urkuluko ur mailak nabarmen egin zuen gora. Azaroaren 17an, ahalmenaren %68,87an zegoen urtegiko ur maila.

■ ARETXARTEK
LOGOTIPOA

Aretxabaletako merkatarien elkarteak logotipo berria aurkeztu zuen. Logotipoa aukeratzeko lehiaketa antolatu zuen elkarteak, eta 14 partehartzailerik izan ziren guztira.

■ AKL ELKARTEAK
INFORMAZIO BATZARRA

Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarteak Aretxagazetaren etorkizunaren inguruko batzar informatiboa egin zuen bazkideentzat. Hainbat zalantza eta kezka argitu ziren bertan.

Bainetxeko industrialdean lehen harria

Azaroaren 7an Bainetxeko industrialdeko lehenengo harria jarri zen. Ekitaldian, Iñaki Telletxea, Eusko Jaurlaritzako Industria Politikarako Sailburuordea, Angel Martin, Gipuzkoako Foru Aldundiko kidea, Anton


Zubiaurre, SPRILUREko zuzendari orokorra eta Anjel Bergaretxe Aretxabaletako alkatea izan ziren.

Bainetxeko lurak 1998. urtean erosi zituen udalak eta industri pabilioiak egiteko erabiliko dira.



Durana kaleko lau etxe behera

Durana kaleko ezker aldean dauden lau etxe bota ziren azaroan. Eskabadorak hiru aste behar izan zituen lau etxeok lurrera botatzeko. Leku horretan etxe berriak jasoko dira, eta hauek aurrekoen fatxada berdina izan beharko dute, alderdi historikoan kokatuta daudelako.

PLAN ESTRATEGIKOKO
DIAGNOSTIKOAREN
AURKEZPENA

LKS enpresak plan estrategikoaren diagnostikoa aurkeztu zuen azaroaren 21ean. Diagnostikoa hau proiektuaren oinarria izango da, eta bertan oinarrituz proiektuaren helburuak eta ekintzak abiaraziko zirela jakinarazi zen.

Dokumentu horrek herriko ahultasunak, mehatxuak, sendotasunak eta aukerak zeintzuk diren aipatzen ditu besteak beste.

Aukeren artean bailara on batean egoteak dituen abantailak azpimarratzen ditu. Era berean bailarako enpresen indarra eta biztanlegoa gero eta gertatua egotearen garrantzia ere aipatzen du. Ahultasun eta mehatxuen artean, barrez, zerbitzuen falta aipatzen da. Horrekin batera herritarrek kanpora joateko duten ohitura jasotzen du, bai aisialdiko ekintzetan, kontsumo ohituretan, etab.

GABONETAKO OTARRAREN ZOZKETA

ERREKABARREN merkatal zentruko dendetan, txartel bat jasoko duzu Gabonetako otar baten zozketan parte hartzeko (gabonetako loteriarekin zozketatuko da). Zorte on!

JUANTXO URDAITEGIA
MARI KARMEN OINETAKO DENDA
IRUDI ILEAPAINDEGIA
MIREIA ARRAINDEGIA
LEINTZ-ROSI
ERREKABARREN FRUITATEGIA

PROTAGONISTAK



Asier Cobos

Urtebetean Australia ezagutzen ibili ondoren, han pasatakoen berri eman zigun Asierrek



Lourdes Urkia

Laupabost urte daramatza altzariak berritzen. "Ordu asko eskatzen duen lana da".

Behobia Donostian 41 atxabaltar

Aurtengo Behobia Donostia maratoi erdian 41 atxabaltarrek hartu zuen parte, 38 mutilek eta hiru

neskek. Joseba Larrinaga bere kategorian lehena izateaz gain, herriko azkarrena ere izan zen.



Bigarren erregionalak garaipen bikaina etxean

Udako bigarren erregionalak 4-1 irabazi zion Aurrera taldeari azaroaren 18an jokatu zuten partiduan. Alberto Perezen mutilak oso ondo aritu ziren etxean. Golegileak Ingidua, Unai eta Donosoro izan ziren, azken honek bi gol sartu zituen.

"Elbarri batzuek egin behar duten esfortzuaz sentsibilizata etorri naiz Sidney-tik"

Pedro Mari Azkargorta
Entrenatzailea



"Pilotan jokatzeko dudanean nahiko konstantea naizela uste dut"

Aitor Alzola
Pilotari afizionatua

MOTZEAN

■ **Arlutz Ak xake liga hasi zuen.** Hilaren 18an Euskal ligan dagoen Arlutz A taldeak liga jokatzeko hasi zen. Lehen norgehiagoka irabazi egin zuten Gasteizko Buztin zuri taldearen aurka.

■ **Alberto Iñurrategi Maliko haitzetara.** Maliko ekialdean dauden "La mano de fatima" izeneko hormak eskalatzera joan zen Alberto Iñurrategi Jon Lazkano bergararrarekin batera.

■ **Frontenis txapelketako finalak.** Frontenis txapelketa azaroan amaitu zen. Bikote atxabaltarrak ez ziren bukaerara iritsi, eta finala eta 3. eta 4. postuak arrasatearren eta bergararren artean jokatu ziren.

Txistuak • Txaloak

Hilabete honetako lehen txistua Mapfre erre eta txikituta utzi zutenek jaso zuten. Hilabeteko txaloez, barrez, eliza konpontzeko dirulaguntza jarri duten herritar eta enpresek irabazi zuten.

GARBITU S. KOOP

**Garbiketa
orokorrak**

Errekararren 3- Behea
Tel.: 943 79 01 28

ITURGINTZA

J.J

Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA
KALEFAZIOA

Tel.: 943 79 07 34
943 79 31 87

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
ARETXABAETA

M

MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11

MOTZEAN

■ **20 MILIOITIK GORA PARROKIAKO LANETARAKO** Aretxabaletako parrokiako berritze lanak ordaintzeko 30 milioiko diru laguntza eskatu zitzaion herriari. Lanak hasi eta bi hilabetera 314 apartazio egon ziren, guztira 20 milioitik gora batuaz.

■ **GOIENKARIA KALEAN** Goienkaria, Debagoieneko aldizkaria, abenduarekin batera kaleratu zen. Egunkari itxurakoa, hasiera batean astekaria izan zen eta harpidedunei herri aldizkariekin batera banatzea erabaki zen.

■ **UDAL ARTXIBOA ANTOLATZEN** Zarauzko enpresa bat udaleko artxibo historiko eta administratiboa antolatuta eta informatizatzen ibili zen. Dokumentuak jaso, banatu eta datu base batean gorde zituzten.


■ **BOLIBARKO ERREKATIK URIK EZ URKULURA** Euria erruz egin arren Bolibartik Urkulura datorren erreka lehortuta egon zen egun batzuetan. Horren arrazoia Arkarazo inguruan ur hodia apurtuta egotea.

Jesus Peñari buruzko liburua kalean da

Hilaren 14an "Jesus Peña idazle atxabaltarra" liburua aurkeztu zen herrian. Aurkezpen horretan liburuan parte hartu duten kolaboratzaileak, "Latxaga" idazlea, Lorentxo Peña eta Jesus Atxa, eta agintariak Lorea Leanizbarrutia, Gipuzkoako Foru Aldundiko euskara saileko zuzendaria

eta Anjel Bergaretxe, Aretxabaletako alkatea izan ziren. 100 lagun inguru batu ziren aurkezpen horretan, udaletxe zaharreko gela txiki geratuz, eta ekitaldi polita eskaini zitzaion Jesus Peña "Aitza"ri.

Liburua eskuratu gura duenak herriko dendetan izango du salgai.



Jesus Catania MCCko lehendakari berria

Aretxabaletan bizi den Jesus Catania altsasuarra izango da MCCko lehendakaria Antonio Canceloren ordez. Abenduaren 15ean jakinarazi zen berria, baina kargua datorren urte bukaera arte ez du hartuko.

Jesusek 58 urte ditu, eta gaur egun MCCko Kontseilu Orokorreko lehendakariordea da.



ATZERATUTA ETXEBIZITZA SOZIALEN ERAIKUNTZA

"Tubos de Precisión" lantegi inguruan egitekoak ziren hamalau etxebizitza sozialen eraikuntza atzeratu egingo da. Udalak, Eusko Jaurlearitzarekin hitzarmena egina zeukan, lehenengoak lurra lagapeanean eman eta Gasteizko Gobernu arduratuko zen etxebizitzaren eraikuntzaz.

Orain, ostera, etxeak egiteko bota behar den Kaminerokua baserria ondare historiko izendatu da mende hasieran industria lantoki txiki bat egon zelako bertan. Udalak, Kaminerokua baserria zutik mantentzea eta etxebizitzak egitea bateragarriak diren edo ez aztertuko duen txostena egitea eskatu dio Eusko Jaurlearitzari. Erantzuna ezezkoa balitz, etxebizitza sozialek izango lukete lehentasuna hala erabakita baitago udalean.

FOTO

Urkiola

ARGAZKIAK

Herriko plaza, 5-behea
Tel.: 943 79 39 20
ARETXABALETA

Bataioak
Jaunartzeak
Ezkontzak

Albunak
Argazki kamarak
Markoak...



URBALTZ
TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABALETA

■ **AZATZAKO SAN ANTON BARRIRO BERE LEKUAN** Orain 6 urte Donostiara konpontzera eroan zen San Antonen irudia, barriro bere lekuan dago Azatzako elizan. Konpontketa lanok elizbarrutiak egin ditu eta horrela kasuetan baldintza hamar bat urte elizbarrutiko museoa egotea izaten da. San Anton, ostera, lehenago bueltatu da bere lekura.

Korueta Santa Ines ere konpontzeko eroanda dago, baina hau zailagoa izango da bueltatzea, balio haundikoa izateaz gain oso txikia denez lapurtzeko arriskua baitu.



Gellaoko eliza laster konponduta

Gellao Eskoriatzako auzoa bada ere bertako elizaz Aretxabaletako parrokia arduratzen da, eta elizaren berrizte lanak ere azkenengo honek eroan ditu. 1999ko otsailtik ez da mezarik esan bertan oso egoera eskasean zegoelako. Kanpotik teilatu berria jarri zaio, barrutik, ostera, lurzorua berriztu, hormak margotu eta argi berria jarri dira. Aldareko mahaia ere berria ekarri da, barrokoa.

Gellaoko eliza, bestalde,

oso dotorea da. Aldare erdian Amabirjina barroko polit askoa dauka eta bi alboetan dauden irudiak ere barrokoak dira. Sagrarioa ere ez da nolana hiko XVI-XVII. mende ingurukoa eta alboetan marrazkiak dituen. Konpontzera eroanda dago baina laster ekarriko da.

Guztira ia 16 milioiko aurrekontua du obrak eta Diputazio, Gotzaitegi, Eskoriatzako udal eta auzokideen artean ordainduko da.

ARETXABALETAKO ABESBATZAK EL CASERIO ZARZUELA AURKEZTU ZUEN AZPEITIN

Aretxabaletako abesbatzak, Jesus Guridiren El Caserio obra aurkeztu zuen zapatuan Azpeitin Euskal antzerki topaketan barruan. El Caserio zarzuela euskaraz antzeztu den lehenengo aldia izan da gainera. Aretxabaletako abesbatzak gain, Azpeitiko Julian Barrenetxea abesbatzak, udal musika bandak eta Itxasi dantza taldeak hartu zuten parte, guztira 100 bat lagunek. Protagonisten artean, bi atxabaltar egon ziren Mariatzen Urkia sopranoa eta Mari Karmen Etxeandia mezzosopranoa. Abesbatza, bestalde, Anjel Barandiaranek zuzendu zuen.

Momentuz behintzat ez dute ekitaldi gehiago eskainiko, eta Aretxabaletan ere ez da ikusteko aukerarik egongo, ez baitago horretarako egokitutako lekurik.



URTARRILETIK AURRERA DOAN

Aretxagazeta + Goienkaria



Egin zaitez harpidedun.

Urtarriletik aurrera Aretxagazeta eta Goienkaria zure etxeko buzoian doan jaso gura badituzu, ondorengo datuak bete eta bidali 151 postakutxatilara edo eta Aretxagazetako buzoian utzi (Durana, 11), udaletxe zaharreko edifizioan.

* Dagoeneko bazkide bazara ez daukazu bete beharrik

Izen-abizenak:

.....

Helbidea:

Posta kodea:

Herria:

Tel.:

MOTZEAN

■ NEGU KULTURALEKO EKINTZAK PREST

Urtero legez, udaleko kultura sailak negurako ekin-tzez jositako egitaraua kaleratu zuen. Musika kontzertuak, liburuen aurkezpenak eta umeentzako jolas eta ikuskizunak ziren nagusi bertan.

■ KEPA AKIXOK

ERAKUSKETA MIARRITZEN
Urte askoan Miarritzen bizi den Kepa Akixo "Zigor" atxabaltarrak, eskultura erakusketa jarri zuen Miarritzen joan zen aste bukaeran.

■ JESUS MARTINEZ TAXISTA JUBILATUTA

34 urte taxista lanetan ibili ostean, Jesus Martinez errioxarra jubilatuta egin da. Bere ordeztu Jesus Berezibar arrasatearra hasi da lanean.

■ HERRIKO UDALTZAINEK TXAPEL BERRIA

Orain arte txapel gorria izan badute ere, hemendik aurrera hirietako udaltzainen antzeko txapela jantziko dute. Jose Nuñezek jadanik jantzi badu ere besteak, Aretxabaletako armarrria jarriko zain daude.



Gabonak heldu baino lehenago bukatu gura da margo lana

Plataformak margo lana egingo du Durana kalean

Euskal presoak Euskal Herrira Aretxabaletako plataformak margo lana egingo du aurtengo Gabonetan. Durana kalean berritzen ari diren etxeak direla eta jarritako egurrezko horman egingo da hain zuzen.

Gabonetan ere euskal presoak eta batez ere Kepa herritarren gogoan dagoela adierazteko erabaki da marrazkia egitea. Plataformari baietza emandako 35 taldeen parte hartzea ere eskatu da horretarako, azken batean presoen arazoak bat egin zuten herritar eta taldeen iritzia ere jaso gura

baita. Talde bakoitzak marrazki edo esaldi bat jarri beharko du dagokion lekuan. Aste bukaera honetan komeni da lan hori egitea, gehiegi ez atzeratzeko, materiala, barriz, Loramendi elkartean dago.

Gabon zaharretan kontzentrazioa

Azkenengo urteetan egin den bezala aurten ere euskal presoen aldeko kontzentrazioa egingo da Gabon Zahar egunez herriko plazan. Ekin-tza hori bultzatzeko, plataformakoek talde guztien parte hartzea eskatzen dute.

ARIZMENDI IKASTOLAREN AURKEZPEN OFIZIALA EGIN DA

Joan zen astean Arizmendi ikastolak aurkezpen ofiziala egin zuen, lehenengo komunikabideen aurrean eta gero jende aurrean. Arizmendi ikastola, Arrasateko San Frantzisko Xabier, San Viator eta Umezaintza ikastolek eta Eskoriatzako Almenek osatzen dute, eta haur hezkuntzatik lanbide heziketa arteko ikasketak eskaintzen ditu. Momentu honetan 3.300 ikasle inguru dabilta bertan, eta Euskal Herriko ikastolarik haundiena izango da. Arizmendi ikastola-kooperatiba aspaldiko proiektua da, orain errealitate bihurtu den proiektua. Felix Ormaetxea lehendakariak esan bezala, "zerbitzurik onena eskaintzeko, ahaleginak batzea gura izan da, eta prozesua luzea eta zaila izan bada ere oso pozik gaude lortutakoaz".



Ezkontu
TABERNA

Mitarte kalea. 17 • ARETXABALETA • Tfnoa: 79 00 00
Mitarte 9 • Aretxabaleta • Tel.: 943 79 92 01

ANDRA MARI
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 943 79 29 26

Iber

★ Loteria ★
✿ Paperdenda ✿

Otalora, 2
Tel.: 943 79 04 39

AKORDEOILARI SARITU UGARI HERRIAN

Arrasateko akordeoilari txapelketak saritu ugari utzi ditu herrian. Akordeoi orkestrako gaztetxoek, 8 eta 10 urte bitarteko 8 lagunek, urrezko domina lortu zuten taldean. Barkarka ere eskuratu zituzten dominak: A hastapena mailan, Naiara Altube eta Jon Ander Isasmendik urrezko domina izan zuten eta Nerea Zubillagak zilarrezkoa. Beste maila batean, barrez, Asier Martinez de Agirre eta Nerea Zubizarretari zilarrezko domina eman zieten.


Leizarra musika eskolan ere bada akordeoilari onik. 12 urteko Maitane Ayalak, orain egun batzuk, saria lortu zuen Torrelavegako nazioarteko akordeoi txapelketan.

Unai-II proiektuko berriak

Hiruatz Aretxabaletako hirugarren munduko taldeak, eskuartearen darabilen Unai-II proiektuaren azkenengo berriak eman dizkie laguntzaileei. Proiektuaren helburua, Indiako Adivasi familia bakoitzak esne-bufala bat izatea da. Hasiera batean, 8 milioiko proiektua bazen ere, Adivasiengan izan duen eragina ikusita, 14 milioitara luzatzea erabaki da. 6 milioi horiekin pentsu eta haziak

gordetzeko behar den biltegi bat egingo da. Bertan bizi den Ignazio Galdos atxabatarraren berrien arabera, alaiago, eta osasuntsuago ikusten dira Adivasi familiak.

Orain arte 9 milioi inguruko diru batzea egin da, beraz, 5 milioi falta dira Unai-II proiektuari bukaera emateko. Hiruatzek laguntza emandako guttietik eskerrak emateaz batera, falta den dirua lehenbailehen batzeko deialdia egiten du.



ARETXABALETAKO ARGAZKIEKIN ERAKUSKETA

Aretxabaletako argazki taldeak Aretxabaletako argazkien inguruko erakusketa antolatzeko asmoa dauka. Herriko erretratu zaharrak eta berriak jarriko dira, mende hasieratik hona Aretxabaletak izan dituen aldaketak ikusteko. Aldi berean musikaz lagundutako proiektioa ere egongo da. Aipatutako erakusketa Toki-Onan egingo da, orain Murruxikoko lokala. Konponketa lanak direla eta fetxa atzeratzen joan bada ere, datorren astean jarri ahal izatea espero dute antolatzaileek.



J A N T Z I D E N D A

LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

ETXE APAINKETA



ALBERTO IÑURRATEGIK ESPERIENTZIA POLITA MALIN

Maliko haitzetan esperientzia polita bizi izan dute Alberto Iñurategi, Jon Lazkano eta gainontzeko taldekideek. Paraje zoragarrietan ibili dira, eta eguraldi beroa izan dute egonaldian zehar. Albertok egindako adierazpenen arabera, taldean oso ondo moldatu dira, eta aurrera jarraitzeko planak ere egin dituzte. Egia esan, eskalada zailik egin ez arren, asko disfrutatu dute. Gainera, Felix anaia barik egindako lehen espedizio horretatik animotsu eta baikor itzuli da Alberto.

MURRUKIXOK LOKAL BERRIA INAUGURATUKO DU GABONETAN

Murrukixo mendizale elkar-teak batzar orokorra egin zuen joan den abenduaren 12an. Urteko balantzeaz gain, datorren urtera begira asmo eta proiektu barri ugari aurkeztu zituen taldeak. Horien artean, Felix Iñurategiri omenaldia egitea, eta umeekin mendiko urteerak egiten hastea. Batzordekide berriak ere onartu ziren. Gabonetan, bestalde, lokal berria estreinatuko du Murrukixok Durana 30ean. Horrekin batera, argazki artxibo taldeak argazki erakusketari jarriko du errege eguna arte.

Errasti anaiak Gipuzkoa elkarte arteko pilota txapelketako irabazle

Unai eta Ibon Errasti anaiek Gipuzkoako elkarte arteko pilota txapelketa irabazi zuten domekan Azkoitian. Finala Arrasateko Errasti eta Zuazubiskar bikotearen aurka izan zen, eta 22-6 gailendu ziren Errastitarrak. Bi anaiek partidu borobila egin zuten, eta markagailuan aguro aurreratu ziren. Arrasatearrek tanto gutxi egin arren, partidua ez zen berehala bukatu.

Finalera iritsi aurretik, Bergara eta Intxaurren kanpoan utzi behar izan zituzte atxabaltarrek. Biak ere aurkari gogorrak izan dira. Ligan, bestalde, bi partidu besterik ez zituzten galdu, eta horietako bat Arrasatearren aurka, gainera. Dena dela, ligas-

kan lehen postuan geldituzen Atxabaltako bikotea. Txapelketan lehen hiru postuetan sailkatu diren bikoteek, bestalde, Euskal ligan hartuko dute parte urtariletik aurrera.

Lau aldiz garaile

Errasti anaiak lau aldiz irabazi dute Gipuzkoako elkarte arteko pilota txapelketa hau. Lehen aldia juniorretan izan zen, 1993. urtean. Seniorretan, bestalde, hiru aldiz gailendu dira, 1995ean, 1998an eta aurten. Iaz aldiz laugarren gelditu ziren, Intxaurren ezin izan zuten gainditu. Historial polita, beraz, bi anaiek Gipuzkoako elkarte arteko pilota txapelketan erakutsi digutena. Zorionak bikote!



Azkoitian txapelketa irabazi ondoren

PEÑA ZUBI TXAPELKETA



Urtero moduan aurten ere Peña Zubi txapelketa jokatuko da gabonetan zehar. Datorren hilaren 23an hasiko da, eta Ibarra futbol zelaian jokatuko dira norgehiagoka guztiak. Txapelketa honetan 10-11 urte bitarteko haurrek jokatzen dute, eta orain artean Aretxabaletako jokalariek gain, Arrasateko eta Eskoriatzakoek ere parte hartu izan dute. Momentuz sei taldek izena eman du, baina seguruenik gehiago ere izango dira.

PREFERENTEAK BI PARTIDU GABONETAN

Gabonetan ez da futbol partidu askorik jokatuko. Udako Preferenteak, hala ere, bi partidu jokatuko ditu. Datorren domekan Hondarribi hartuko du etxean arratsaldeko 16:00etan. Urteko azken egunean, bestalde, Hernanin aurka izango dute partidua. Errege eguna arte ez da beste partidurik izango.

KIROL DENDA
Esko Sport


Intxaurtxueta, 5 943 71 52 96 ESKORIATZA

Jai zoriontsuak
eta urte berri on

Loramendi kirolak

www.loramendikirolak.com

INTERSPORT®



SNOW

Tabla + fijazioak	25.995.-
Botak	12.995.-
Snow eskularruak	6.495.-

ESKI

HEAD tablak + fijazioak	29.995.-
Salomon botak	17.995.-
Goretex eskularruak	4.995.-

Eskiak konpontzen ditugu.

l o r a m e n d i n g a u d e



Z o r i o n a k


FARMA

BIZI
PARAFARMAZIA

Gabon hauetan oparitu
ezazu edertasuna
eta osasuna

Loramendi, 8
20550 ARETXABAETA ☆ Tel.: 943 77 18 18

Z
o
r
i
o
n
a
k



ILEAPAINDEGI
ESTETIKA
SOLARIUMA
LORAMENDI, 10
TEL: 943 77 01 26
20550 ARETXABAETA

Z
o
r
i
o
n
a
k

ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
ESTETIKA



arbitze

GARBIKETAK

Gabon
zoriontsuak


Loramendi, 6
20550 ARETXABAETA
Tel.: 943 79 53 61

l o r a m e n d i n g a u d e

<p>LEIBAR ARRAZKIDEGIRK Mitarte, 1 • Tf. 943 771379 Loramendi, 1 • Tf. 943 791833</p>	<p>ERRASTI Kioskoa Durana, 19 • Tf. 943 799876</p>		<p>IBARRA ESTANKOA CENTRO COMERCIAL LEZAMA, 14 PRENTSA IKASBERRIALA Bizkaia, 3 • Tf. 943 792377</p>	<p>Lasai Masje iragorritan Prestatu zerbitzu eta egokizko diplomata Lezama merkatal zentrua Santa Kurtz, 24 • Tf. 943 770434</p>
<p>Maritxu Mertzzeria Araba Ibilbidea, 24 Tf. 943 79 23 53</p>	<p>GEMES EERTZE ARETOR Durana, 40 Tf. 943 799918</p>		<p>CONFECCIONES ASENSIO JANTZIDENDA Mitarte, 12 • Tfno.: 943 79 10 72</p>	<p>JOSU Urdaletgia Gozotegia Kroasantegia Janari prestatuak Mitarte, 1 • Tf. 943 77 03 08</p>
<p>Jon HARATEGIA Loramendi, 1 • Tf. 943 79 71 69</p>	<p>Santa Kurtz Janari denda Tf. 943 79 28 19</p>	<p>Frutan eta txarkuterian espezialitatea Angelines AUTOZERBITZUA Mitarte, 16 • Tfno.: 943 79 61 42</p>	<p>Larad Peluqueria y Salon de belleza • EXTENSIONES • MICROPIGMENTACION • DEPILOCACION ELECTRICA Loramendi, 11 • Tf. 943 799079</p>	
<p>MartiW GROTERIA • DIZKALGIA Mitarte, 16 • Tf. 943 79 01 72</p>	<p>IRIARTE Umeen denda eta lantzeria Durana, 8 • Tfno.: 943 79 10 96</p>	<p>ARETXABALETA ITURGINTZA Durana, 16 • Tfno.: 943 79 17 53</p>	<p>Etxabe harategia Durana, 4 • Tf. 943 79 16 61</p>	
<p>FARMA BIZI Loramendi, 8 Tfnoo-Faxa: 943 771818</p>	<p>TXILARRA ELIKADURA BEREZIA Durana, 35 Tf. 943 79 10 15 Loramendi, 9 Tf. 943 79 44 28</p>	<p>GARBITZE Loramendi 6, Bebe • Tf. 943 79 53 61</p>	<p>BEGIBADO OPTIKA Loramendi, 10 • Tf. 943 79 98 21</p>	
<p>MIREN & ZURINE BITXIEN DISEINUA Otalora kalea. Etxa aurrealdean Tfno.: 943 771357</p>	<p>Irudi ILUSTRACIONA PELLUQUERIA MENTA Ereka Barren, 20 b. • Tf. 943 798090</p>	<p>Jauregi okindegia Otalora, 10 Tf. 943 79 57 47</p>	<p>Gertu Especialidad EN BACALAO Mitarte, 10 • Tf. 943 770612</p>	
<p>IMANOL JANARI DENDA Gorbea kalea • Tfno.: 943 79 05 83</p>	<p>HERRASTI AKETA ETXEA CAFES Aralar kalea, 7 • Tf. 943 79 32 83</p>	<p>ALDE ARETXABALETA Murubide IFA Murubide, 4 • Tf. 943 79 91 76</p>	<p>MARRIK Umeendako moda Lezama merkatal zentrua, 15 Tf. 943 77 14 86</p>	
<p>ALBOKA MODA JOVEN Durana, 36 • Tfno.: 943 771610</p>	<p>Zubia Oinetakoak Faltak • zapatak • gerrakoiak Mitarte, 14 Tfno.: 943 79 16 00</p>	<p>MARI KARMEN calzados oinetakoak KONPONKETAK Ereka Barren • Tf. 943 79 59 85</p>	<p>Eruteria Erreka Barren Fruta denda Loramendi, 10 Tf. 943 77 01 26 30550 ARETXABALETA</p>	
<p>ELECTRONICA AITZORROTZ • Asesoramiento y mantenimiento • Instalaciones electronicas • Reparacion, servicio telefonico y mantenimiento • Venta, reparacion TV, AUDIO, VIDEO • Canal Satelite digital Otalora, 14 • Tfno-Fax: 943 791610</p>	<p>PAPERDENDA LIBRERIA LOTERIA Otalora, 2 Tfno.: 943 79 79 24</p>	<p>XUME Teladenda Ereka Barren, 14 • Tf. 943 79 11 19</p>	<p>1-10 LORAMENDI, 10 TEL. 943 77 01 26 30550 ARETXABALETA</p>	
<p>FLORISTERIA NERIAN LORADENDA Tfno.: 943 79 70 66</p>	<p>IBER Otalora, 2 Tfno.: 943 79 79 24</p>	<p>EUSSKO JAURLARITZA INDUSTRIA, MERKATUTZUA ETA TURISMO SAILA</p>	<p>GOBIERNO VASCO DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, COMERCIO Y TURISMO</p>	

**"UMEEN" LOTERIA
OPARITZEN DUGU**





Pintxoak
Otaratekoak
Hanburgesak
Patata brabak

Jai zoriontsuak eta urte berri on

Lauxitta taberna

ORDUTEGIA: 10:00etatik 22:00etara Lauxitta kalea, 4 20550 ARETXABALETA ☎ 943 79 29 36

...eta eroa, behia al da?

Behietan diagnostikatutako gaitz berria encefalopatia espongiformea izanik, behiari eroa terminologia gehituaz, gaitzaren izena sinplifikatu ezezik, bere hondo politikotik desbideratu ere nahi izan da.

Behi eroaren agente sortzaileak (prioia: anormalki egituratutako proteina) behiaren elikadurarekin zerikusia izan du, abere irinen arabilerarekin alegia. Baina ezin gaitezke jatorri zootekniko horretan soilik gera. Sinplekeriari omenaldi ederra egingo genioke, liberalizazioaren espektakulu dramatikoak sakontasunez aztertzen ez badugu.

Behiei abere irinak ematea posible izan da produktibismoaren politikak horrelakoak eta handiagoak posible bihurtzeko gaitasuna duela sinisten duelako, epe labur eta motzeko zenbaitzun kontu ekonomiko soilean oinarritzen baitu bere sinismena, arreta printzipioa, elikadura segurantza eta elikadura subirautea alboratuaz. Horrela, Europako Nekazaritza Politikak hasiera hasieratik eredu intentsiboen sustapenera jo du buru belarri eta hortxe kokatzen da baita EEBBekiko menpekotasuna landare-proteinaren ekoizpenari dago-kionean.

Behi zoroa erotua egon den eta dagoen nekazaritza politikak intsumisiora eraman duen behi bat baino ez da, politikaren sintomatologia eroa ageri agerian utziaz errebelatu egin den behia da.

Ahalik eta esne gehien ekoizten duen behia nahi da, ez du axola nola, elikaduran abere-proteina erabili behar bada ere, aurrera!. Kontua behi hiper-makroproduktiboena lortzea da eta merkatuan litro esne dexente mugitzea. Herrien elikadura subirautea eta gehiegizko produktiorik ez dute esistitzen liberalismoaren legeetan, soberakinei irtenbidea emateko baitago politika horren neurri-egintza mundu mailako merkatua. Horrela, adibidez, sartu zuen Indian Europak bere esne soberakina 20 ptan litroa, bertako produkzioa hankaz gora jarriaz eta baserriar indioak itxoarazi-az.

Esne sektorerako Europako politika erreforma ekoizpenaren liberalizazioa

iragartzen ari da, prezioak produktoreei %15ean jaitziko lehendabizi. Politika horrekin ezinezkoa egiten da enplegua mantentzea, are gutxiago sortzea, eta kalitatean oinarritzea.

Haragiaren politika ere antzekoa dugu. Europak erabaki berri duen erreformak haragiaren prezioa, azken hamabost urteotan ekoizlearentzat berdin mantendu dena, %20an jaitziko du. Behin eta berriz, nekazaritzan diharduz, langileak diren baserriarren duintasuna erasotua izaten jarraitzen du.

Behi eroen presentzia arduratzekoa da, jakiña. Baina benetan alarmatzekoa gaitza sortarazi duen politikak oraindik ekar lezakeena da, aldaketarik ematen ez bada bederen.


Aukera ezin hobea du Europako Batasunak sakoneko aldaketak erabaki eta garatuaz, partxeak baino ez diren irtenbideak ezartzera mugatu beharrean, balio soziala, kalitatea eta segurtasuna interes ekonomiko eta merkantilen aurretik ezartzeko. Oraindik ere txerri, oilasko eta txekorren elikaduran zenbait antibiotiko erabil daitezke, hazkuntza prozesua areagotzeko eta praktika hauek soilik politika produktibista eta industrial bati baino ez diote erantzuten.

Azken finean, politika horren helburuak asetu beharrak ustiatzearen sistematik industrializazioarentz eta intentsifikazioarentz daramatza eta horrekin batera enplegu galera, ingurugiroarekiko desoreka eta kalitatearen murrizketa.


Eta egoera honen aurrean ezin da mezu bikoitzekin ibili, ez sektorearen aurrean, ekoizpen industrialak bultzatzen eta kalitatea eta balio sozialak aipatzen, ezta ere kontsumitzailearen aurrean, kalitatea gutxiengo bati eskainiz eta hutsalaren hutsala gehiengo sozialiari.

Behi eroen espektakulu negargarri honek zentzuzko bidera eraman behar luke Europako Batasuneko nekazaritza politika, lurrari loturiko baserri giroko ekoizpen ereduaren oinarrituz gizarte-ari egoki erantzuteko funtsezko balioetan: kalitatea, ingurugiroa eta oinarri sozial sendoa.

Jon ZUAZABEITIA



Irakaslea da San Frantzisko Xabier ikastolan, eta ikaslea Humanitate zientzien fakultatean. Bere afizioa, osterera, kontu zaharrak topatu, itzuli eta jasotzea da. Joan zen astean kaleratutako Jesus Peñari buruzko liburuan ere parte hartze zuzena izan du.



Aitor Antxia Leturia

Kontu zaharrak batzeko afizioa

■ **Aurtengo kurtsoan bukatuko dituzu Humanitate eta Zientzia ikasketak, gero zer?**

■ Orain arte moduan, irakasle lanetan jarraitu. Arizmendi proiektua badator eta horrelako proiektu haundietan sartzeko zenbat eta gehiago jakin hobeto.

■ **Zer egiten du atxabaltar batek Arrasaten?**

■ Bizitzak ematen duen derrigortasuna, nonbait bizi behar eta Arrasaten etxea erosteko aukera izan genuenez, haraxe. Dena dela bizimodua Aretxabaletan egiten dut, eta Arrasaten etxean, kalean bat ere ez.

■ **Noiztik kontu zaharren atzetik?**

■ Aretxagazeta sortu zenean, 1989an, Iñaki Urreta artxiboan sartuta zegoen

eta laguntza eskatu zioten zerbait egiteko. Hark niri esan eta biok hasi ginen, argazki zaharrak eskuratu eta historiako bat asmatuz Aretxagazetarako lanean.

■ **Kapirixo taldean jarraitzen duzu?**

■ Ez, egiten dudana neure kontu da, Kapirixoko taldekide moduan ez dut ezer egiten. Kapirixo taldea Bergaran sortu zen, ondare historikoa berreskuratu eta zaintzeko asmoarekin. Sei bat atxabaltar egon ginen hasieran, baina poliki-poliki hoztuz joan gara eta gaur egun Bergarak eta Oñatik bakarrik jarraitzen dute, eta lan politak egiten dituzte, gainera.

■ **Zerk bultzatzen zaitu kontu zaharrak aztertzeraz?**

■ "Izan zirelako gara eta

garelako izango dira", beraz, gu zerbaiten edo norbaiten ondorio gara. Norbera zer den jakiteko bere aurrekoak zer izan ziren jakin behar du, eta guk ere zerbait egin behar dugu etorkizunekoek ere zer diren jakin dezaten. Lehengo gertakizunen berri izateko artxibora edo jende nagusiarengana jo behar da eta nik oso gogoko dut lan hori.

■ **Zer egiten duzu lortutako informazioaz?**

■ Milaka horri eta diskete dauzkat etxean. Aretxabaletako toponimiaren inguruko hainbat izen dauzkat jasota, auzo eta baserri inguruko toponimia ere badaukat katastrofik batuta. Toponimia jaso, mantendu, eta ondoren, erakutsi beharra dagoela uste dut, izan ere orain Basa-

betik gorako gutzia askorentzat Urkulu da eta hortik gora baserri, baso, iturri eta errekatxo ugari daude, bakoitza bere izenaz. Toponimia aztertzen ari naitzela sarritan testamentuekin ere aurkitu naiz, beraz, Aretxabaletako hainbat testamentu zahar ere jaso ditut, gero transkripzioa egin eta gorde.

Beste batzuetan, lan zehatz bat egin behar izaten da, kasu horretan artxibora datu konkretuen bila joaten naiz. Sekula ez da jakiten noiz eta zertarako behar izango dudan datu bat, beraz, dena gorde egiten dut.

■ **Kontu zaharren inguruan Aretxabaletan gehien dakiena zeu zara?**

■ Ez... Jende nagusiak euren bizitzako historia eta

euren arbasoengandik jasotakoa dauka. Nik, horriengandik, euren historiari jaso eta gero artxiboetan aurkitutako mila gauzaz osatu ditut. Hala eta guztiz Iñaki Urretak nik baino askoz gehiago daki, hori da gainera bere lanbidea, ni afizionatu hutsa naiz.

■ Zeintzuk dira zure informazio iturriak?

■ Calahorrako artxiboa, Aretxabaletakoa, Oñatiko protokolo historiko artxiboa, Donostiako elizbarrutiko artxiboa eta gero hainbat liburutegietara joaten naiz: Koldo Mitxelena, Santxo El Sabio fundazioa, Arantzazuko liburutegia... Norbaiti samurra dela artxiboetatik datuak kopiatzea irudituko zaio, baina sarritan orri ugari irakurri behar dira esaldi bakar bat ateratzeko. Jende nagusiarengana ere jotzen dut, batez ere gaur egungo historien berri izateko.

■ Jesus Peñari buruzko liburuan parte hartu duzu. Zergatik uste duzu sortu duela hain interes handia atxabaltarren artean?

■ Zorionez historiaren ikuspegia poliki-poliki aldatuz doa eta jadanik, historia ez da bakarrik gerra eta erregeen kontuak, egunerokotasuna ere bada,

herritarrek nola bizi ziren... Hori izan daiteke arrazoi bat eta gainera, Peñaren kasuan askok etxean entzun izan ditugu Peñatarren historiak, gerra garaian bi anaia hil zirela, eta jende nagusiarendako erakargarriak dira gerra garaiko kontuak.

■ Historia aldetik begiratu-

ta Aretxabaleta berezia da?

■ Ez, beste herri bat gehiago da. Hori bai hainbat kontu kurioso ditu, bate-tik, XV. menderarte ez zela Gipuzkoa izan, Oñatiko kondearen menpe zegoen, eta bestetik, XVII. menderrate Eskoriatzarekin bat eginda egon zela, Leintz Bailara izanik. Batzuk uste izango dute bainuetxea

izan zuelako aparteko zer-bait izan zela gure herria, baina Eskoriatzan, Arrasaten, Aramaion eta Oñatin ere bazeuden bainuetxeak.

■ Zein da aurkitu duzun kontu kuriosoena?

■ Kuriosoak asko daude, pare bat kontatzekotan bata elizako artxiboetan aurkitutakoa da. XVII eta XVIII. mendeetan gotzaia parroketara bisitan etortzen zenean aholkuak ematen zizkien bertako abadeei eta artxibo batean honela zegoen jasota: "abadeek ezin izango dute kartetan jokatu, tabernetan sartu, zezenak toreatu, dantzan egin...". Nola aldatu diren egoerak. Bestalde, oraintsu, Perun egon zen arkazoar baten testamentua topatu dut. Milaka dukat utzi zituen bertan, Eskoriatzako Errosariotako Amaren ospitala jasoteko, gaur egun Humanitate eta Zientzien fakultatea.

■ Gerora begira gaurkoa ere gorde beharko genuke?

■ Noski. Garai batean norbaitek kapritxoz atera zituelako ditugu gaur argazki zaharrak, beraz, gauza bera egin beharko genuke. Ez bakarrik argazkiak, dokumentazioa ere jarraitu beharko litzateke. Bere momentuan ez dena gordeetzen gero ez dago.

“Toponimia jaso, mantendu eta ondoren erakutsi beharra dagoela uste dut”



Aitor Antxiakin batera Jesus Atxak eta Lorentxo Peñak parte hartu dute "Jesus Peña idazle atxabaltarra" liburua idazterakoan.

Hies berria

943 79 26 99

**BASTER-ALDE
JATETXEA**
SASOIKO
JAKIAK
GIRO
ONENEAN

Galartza auzoa Tel.: 943 79 24 58 ARETXABALETA

IZOTZ Taberna

Mitarte, 16 • Tel.: 79 73 65
Aretxabaleta

2000. urtean jaio, ezkondu eta hildakoak

Jaiotakoak

- 00-1-1 Joseba Iñaki Saez-Azkunaga Fabian
- 00-1-6 Iraide Otxoa Barandiaran
- 00-1-19 Ane Perez Arregi
- 00-1-21 Edurne Agudo Soria
- 00-1-23 Maria Vitoria Borrego
- 00-1-26 Jon Zabaleta Velasco
- 00-1-28 Liher Urrutia Domaika
- 00-2-2 Gorka Perez Caballero
- 00-2-4 Joanes Sarasua Gonzalez
- 00-2-6 Nerea Fernandez de Antona Zudaire
- 00-2-15 Jon Aizpuru Oliden
- 00-2-27 Iñigo Arkauz Uribealzo
- 00-3-11 Olatz Zubizarreta Aperribai
- 00-3-13 Xabier Zuazabeitia Garmendia
- 00-3-30 Unai Azkarate Calvo
- 00-4-11 Josune Blanco Urbano
- 00-4-14 Josu Dominguez Gutierrez
- 00-4-15 Lierni Castilla Miguel
- 00-4-16 Ane Izquierdo Fabian
- 00-4-20 Ander Gonzalez Inda
- 00-4-20 Elene Errasti Arriola
- 00-4-24 Nagore Cebrino Arkauz
- 00-4-26 Elene Carrillo Etxabe
- 00-5-4 Sarah Corres Zubillaga
- 00-5-5 Jokin Isasisasmendi Esteban
- 00-5-7 Danel Luengo Barrutia
- 00-5-8 Uxue Olabe Zufiria
- 00-5-19 Amaia Martinez Jausoro
- 00-6-1 Jone Zuloaga Vazquez
- 00-6-25 Mara Hernandez Beltran de Heredia
- 00-7-14 Jokin Uribetxebarria Madinabeitia
- 00-7-16 Ihintz Unanue Urizar
- 00-7-21 Mikel Egia Barandiaran
- 00-7-28 Asier Davila Lezeta
- 00-8-1 Maialen Martin Espeso
- 00-8-18 Uxue Morales Elorza
- 00-8-21 Eneko Calvo Mendia
- 00-8-30 Ane Azkarate Quintana
- 00-9-16 Alaitz Mendieta Altuna
- 00-9-17 Nerea Garay Azkarate
- 00-9-18 Jon Azarola Oskoz
- 00-9-22 Hur Sarasua Antero
- 00-9-27 Marina eta Carla Quintas Gonzalez
- 00-10-5 Asier Mongelos Martinez
- 00-10-8 Unai Mendieta Garcia
- 00-10-24 Liher Oyarbide Arrese
- 00-10-28 Nicole Kruse Noda
- 00-11-1 Leire Elizondo Aranburu
- 00-11-1 June Gastañaga Zugasti
- 00-11-18 Jone Triviño Madinabeitia
- 00-11-19 Amaia Esperesate Arenaza
- 00-11-21 Eider Martinez Dorcel
- 00-11-25 Danel Seijo Fernandez
- 00-12-3 Lur Garay Cardenal
- 00-12-9 Alexander Manuel Benitez
- 00-12-16 Markel Bengoa

Ezkonutakoak

- 00-1-22 Josu Lazkano-Alicia Ozaeta
- 00-1-27 Nerea Etxeandia-Haritz Iturbe
- 00-2-4 Alazne Larrinaga-Javi Arambarri
- 00-3-18 Nekane Alday-Leopoldo Borrego
- 00-4-1 Josu Unamuno-Mª Teresa Jimenez
- 00-4-8 Olatz Oñederra-Luis Miguel Mirenza
- 00-4-15 Asier Guenetxea-Oihane Etxebarria
- 00-4-15 Ricardo Garcia-Lidia Carrasco
- 00-5-6 Garbiñe Laskurain-Felix Garrido
- 00-5-13 Anabel Aranzadi-Javi Garcia
- 00-5-27 Jasone Martinez-Juanma Vales
- 00-5-27 Unai Elkoro-Ane Gereka
- 00-5-27 Enrique Romero-Mª Asuncion Berrocal
- 00-6-3 Naiara Arrese-Oscar Encina
- 00-6-3 Eskarne Eraña-Mikel Uribetxebarria
- 00-6-3 Idoia Etxebarrieta-Luis Bermudez
- 00-6-17 Claudio Blanco-Mª Mercedes Fernandez
- 00-7-1 Laura Aldalur-Iñaki Agirre
- 00-7-1 Miguel Angel Romero-Yolanda Herrera
- 00-7-1 Elena Martinez-Alberto Salgado
- 00-7-8 Mª Teresa Asurey-Pedro Garcia
- 00-7-22 Manuel Carmona-Sonia Alonso
- 00-7-29 Unai Altuna-Marijo Dominguez
- 00-7-30 Mireia Axpe-Juanjo Arias
- 00-9-2 Mª Carmen Roncero-Alejandro Alvaro
- 00-9-9 Iban Elortondo-Nerea Viñaras
- 00-9-16 Aitor Urkia-Isabel Vigara
- 00-9-23 Amaia Iturbe-Fermin Lezeta
- 00-10-7 Jose Luis Eraña-Encarna
- 00-10-7 Mª Carmen Zabala-Iker Urcelay
- 00-10-7 Nuria Alonso-Teodoro Orgaz
- 00-10-12 Ana Mª Lorenzo-Jose Mª Garzon
- 00-10-14 Mª Pilar Seijo-Agustin Gonzalez
- 00-10-21 Arantzazu Zuazabeitia-Igor Oskoz
- 00-10-21 Mikel Urreta-Loraia Ortiz
- 00-10-28 Jone Miren Varilla-Jose Manuel Diaz
- 00-11-11 Judith Eraña-Xabier Lazpiur
- 00-11-11 Gotzon Berezibar-Amaia Azkue
- 00-12-9 Andoni Zumalde-Mª Sol Biteri

Zerrenda honetan ahalik eta izen gehienak jasotzen saiatu gara. Sentitzen dugu norbait ahaztu badugu.

Hildakoak

- 00-1-5 Esperanza Altube Arrazkarate -94-
- 00-1-7 Klaudio Arriola Zugasti -68-
- 00-1-9 Melchor Unanue Makazaga -81-
- 00-1-10 Teresa Lete Aldai -64-
- 00-1-13 Roman Martinez de la Hidalga -87-
- 00-1-20 Policarpo Bengoa Argarate -86-
- 00-1-21 Jacinta Elorza Ortubay -74-
- 00-1-29 Miren Espin Castro -59-
- 00-2-8 Clemente Alberdi Barrena -86-
- 00-2-12 Jose Ramon Varona Badiola -52-
- 00-2-19 Josefa Garro Sasiain -93-
- 00-2-24 Javier Diaz de Gereñu -64-
- 00-3-1 Jose Garcia-Etxabe Beitialarngoitia -84-
- 00-3-1 Maria Bergaretxe Aranzabal -87-
- 00-3-5 Victoriano Mesonero -65-
- 00-3-17 Jose Urkia Orue -88-
- 00-3-24 Juan Molina Guerrero -65-
- 00-3-30 Pedro Zugasti Iturbe -68-
- 00-3-30 Luis Otxoa Garcia-Etxabe -73-
- 00-3-30 Juana Monge Corbacho -88-
- 00-4-1 Jose Mª Etxeberria Arriolabengoa -73-
- 00-4-4 Benedikta Uribarren Bengoa -86-
- 00-4-10 Carmen Larrañaga Zubia -87-
- 00-4-24 Francisco Intxauspe Perez -70-
- 00-4-27 Ramona Hidalgo Gomez -94-
- 00-5-5 Jose Vazquez Alonso -79-
- 00-5-13 Mª Luisa Azkarate Arrese -53-
- 00-5-15 Brigida Belategi Arriola -76-
- 00-5-21 Marcelino Remedios Salgado -80-
- 00-6-4 Maria Palomino -79-
- 00-6-15 Feliciano Martinez Carrasco -53-
- 00-7-2 Jose Mª Madinabeitia Ezkibel -69-
- 00-7-28 Felix Iñurrategi -33-
- 00-8-7 Pablo Herrasti -91-
- 00-8-13 Julian Olabe -89-
- 00-8-21 Jesus Urkia -69-
- 00-9-7 Fidel Antxia Ezpeleta -77-
- 00-9-30 Iñaki Elorza Igartua -21-
- 00-10-7 Honorio Segovia Villar -71-
- 00-10-17 Maria Legarda Maiztegi Romero -49-
- 00-10-18 Francisco Espinar Malagon -78-
- 00-10-20 Santiago Uriarte Eskibel -82-
- 00-11-11 Manuel Jimenez Palacios -79-
- 00-11-13 Pedro Iriarte Astola -79-
- 00-11-16 Dolores Zubizarreta Uribetxebarria -81-
- 00-11-19 Jose Mª Urzelai Madinabeitia -66-
- 00-11-20 Angeles Delgado Blanco -89-
- 00-11-22 Juan Martinez Feijoo -55-
- 00-11-24 Rosario Elorza Heriz -67-
- 00-11-30 Imanol Sasiain Iturriaga -42-
- 00-12-7 Martina Carrera Calonge -71-
- 00-12-9 Yoana Barreno Cabrero -23-
- 00-12-16 Maxima Idigoras Errasti -91-
- 00-12-18 Mateo Gallego Ales -85-



Bi mila agur 2000ari

Badoa aurtengua ere eta datorrenari begira gaude honez gero. Ondo portatu direnak, izango dute erregaluri Olen-tzerotan eta txarto portatu direnak, barrez, azken ahale-gintxo egin beharko dute egunotan. Kontuak kontu, hauxe izango ei da 2.000. ur-teko azken alea eta ez da ez izenik gabekoa.

Akabera ezin hobe eman diote Almen ikastolako **Nerea Olmedo** eta **Mirari Arandok** urte honi, "Ttiki" lemapean aurkeztutako lanean, bigarren saria eman baitzien Gizabidea Fundazioak. Olentzero, denbo-raz etorri zaizue zuei. Zorionak.

Xabi Lasagabaster eta **Mikel Etxabek** ere, partidu bere-zia jokatu zuten abenduaren 13an. San Mamesen, Athletikaren kontra, hain zuzen be Aurrera Vitoria taldean jokatzen dute biek, eta Kopako partidua tokatu zitzaizen Bizkaitarren aurka. Hemendik aurrera ezingo dugu esan Zubizarreta bakarrik pasatu zela San Mamestik.


Gure korukoek ere azkenean estreinatu zuten hainbeste aldiz entsaiatutako, Jesus Guridiren "El Caserio" obra. Zapatuan zen Azpeitin eta bertan izan ziren, zelan ez, **Mariatzan Urkia** sopranoa eta **Mari Carmen Etxandia** mezzosopranoa. Bikain abestu zutela ez dago dudarik, bertara joaterik izan ez nuen arren, ikusi besterik ez dago bestela,

igandean egin zuen eguraldi zoragarria.

Eguraldi eguzkitsuarekin ibili ziren **Joseba Larrinaga** eta **Andoni Aizpuru** ere Urkuluri buelta ematen. Bueno buelta osoa ez, telebistaz hori erakutsi nahi izan ziguten arren, atxabaltarrok, konturatu ginen, urten ziren tokitik bueltatu zirela, buelta osoa eman barik. Beste konpromisu bat ere baduela jakin dugu. Gabon gauetz telebistan kantu kantari agertuko da, aber zelako ahotsa duen gure atletak.

Murruxiko dugu, bestalde, aipagai. Pasa den abenduaren 12an izandako batzar orokorrean, aurpegi barriak erakutsi zizkiguten. Horien artean berriak: **Xabier Basabe**, **Jabi Garcia**, **Goio Arrieta**, **Iñigo Berridi** eta **Imanol Etxabe**. Bertan lehendik zeudenak eta aurrera jarraituko dutenak, barrez, **Oier Aranzabal**, **Oier Etxebarria** eta **Alberto Etxebarria**. Ia bada barrikuntza honekin ekintza edo irteera berriak antolatzen dituzten. Aurrera eta gora joan zaigun beste napar-atxabaltarra, **Jesus Catania** dugu. Orain MCCko lehendakari izendatu berri dute. Laster harrapatuko dugu gurekin hizketalditxo bat egiteko. Beno eta banoa. Datorren urterarte ondo izan, eta turroiarekin pasatu gabe ibili. Urtarrileko aldapa famatua, bertan dago, eta gero ez dago damutzerik.

M. J. Arzak



Agur, Euzkadi

Juan Luis Zabala
Susa, 2000

Juan Luis Zabalak Lauaxeta 1997an berpiztu du bere azken nobela honetan. Nobelako narratzaile eta protagonista den kazetari batek bere lana utzi eta Lauaxetarekin batera bidaia xelebrea egingo du Euskal Herriko mendi eta txoko berezietan barrena.

Lauaxetaren berpizteak gerra garaiko Euzkadi eta gaur egungoa konparatzeko balio dio idazleari. Azken batetan gure literatura, kazetaritza eta beste gai askori buruzko erreflexioak egiten dira liburuan zehar, beti ere umore puntu batez.

Joseba Lopez de Armentia

EUSKARA ZUZENTZEN

Hona hemen gaurko akatsa.

- Majo botaten dau...
- Atxabaltan be edurre ebilen.
- Aber ba... Bilboraino ez dan ailegau.

- Majo botaten dau...
- Atxabaltan be edurre zan.



LIBURUTEGIKO TXOKOA

AGENDA

ABENDUA

16-24

■ MARGOKETA

Egun hauetan zehar Euskal Presoak Euskal Herrira plataformak Durana kalean jarri duen murala margotuko da.

22 EGUAKOTXA

■ AKORDEOI EMANALDIA

Aretxabaletako akordeoi orkestrak emanaldia eskainiko du parrokiaren 20:00etan.

24 DOMEKA

■ BASERRIZ BASERRI KANTUAN

Baserriz baserri kantuan joan gura duenak, 8:30ean plazan egon beharko du. Baserritar jantzita joan behar da, eta 14 urtetik gorakoei zuzenduta dago.

■ KALEAN ZEHAR KANTUAN

Goizeko 10:30etik aurrera herriko gurasoak eta umeak baserritar jantzita kaleetan zehar abestuko dute.

■ OLENTZERO

Arratsaldeko 6:30etik aurrera Olentzeroren bisita jasoko dugu. Kirol etxetik Herriko plazaraino joango da.

■ MENDI URTEERA

Zaraia mendi taldeak turroi eguna ospatuko du Orkatzategira urteera eginez. Turroia, txanpaina... izango da tontorrean. Urteera 8:30ean Zaraia lokaletik.

29 EGUAKOTXA

■ KONTZERTUA

Pettiren kontzertua. Loramendi euskara elkarrearen eskutik gaueko 22:30ean Ezkutu tabernan.

26-29

■ POXPOLIN PARK

Haurrentzat joko eta tailer desberdinak egongo dira kiroletxean.

30 ZAPATUA

■ KONTZENTRAZIOA

Euskal presoak etxera lemapean kontzentrazioa izango da Mitarte kalean 19:30etik aurrera gestorak antolatuta.

31 DOMEKA

■ BIZAR ZURI

18:30ean kiroletxetik irtengo da Leizarra musika eskolako ikasleen laguntzaz.

■ KONTZENTRAZIOA

"Herriaren hitzaren defentsan, EPHE" lemapean kontzentrazioa izango da 19:15ean herriko plazan.

URTARRILA

5 EGUAKOTXA

■ ERREGEEN KABALGATA

18:30ean erregeak kiroletxetik herriko plazaraino joango dira. Leizarra musika eskolako haur abesbatzak gabon kantak abestuko ditu bertan.

■ KONTZENTRAZIOA

Euskal presoak etxera lemapean kontzentrazioa izango da Mitarte kalean 19:30etik aurrera.

12 EGUAKOTXA

■ KONTZERTUA

Xabaltz iparraldeko taldeak kontzertua eskainiko du Kurtzebarri eskolako aretoan 22:30ean.

13 ZAPATUA

■ TITIRITEROAK

Sebastopoleko titiriteroak "Mamutxoaren arazoa" antzezlana eskainiko digute, 17:00etan kiroletxean.

BALOITAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

Aretxagazeta

Zorion agurrak



Maritxu Arenaza
Abenduak 12
Datorren urtean ere
ea urtero bezala
danok elkarrekin
bazkaltzen dugun.
Zorionak iloben
partetik.



Anabel Aranzadi
Abenduak 13
Berandu baina
seguru. Kafia hartu
ostien tokau jaku
aurten zoriontzia.
Zorionak. Zure
lagunak.



Jon Gonzalo
Abenduak 18
(urte 1)
Zorionak etxeko
guztien partetik.



Gorka Gonzalo
Abenduak 26
(4 urte)
Zorionak etxeko
guztien partetik.



**Maitane Dorda
Osa**
Abenduak 17
Zorionak neska
politinari guraso-
en partetik.



Jone Olalde
Abenduak 23
Zorionak etxeko
guztien partetik
eta ondo pasatu
eguna.



Elisabeth Aldalur
Abenduak 27
Mutriku aldera
zorionak. Zure koa-
drilakuak.



Mikel Arriola
Abenduak 29
(urte 1)
Familiako eta etxe-
koen partetik zorio-
nak.



Iker Hernandez
Urtarrilak 7
(4 urte)
Ondiokan datorren
urte arte ez da zure
eguna baina...
Alaitz eta Mara-n
partetik zorionak.

Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Telebista	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 71 26 28
• Kultur-Etxea	943 71 10 27
• Kurtzebarri Eskoia	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murruxiko M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikast.	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15

Jaiotakoak

■ Lur Garay Cardenal.

Abenduaren 3an.

■ Alexander Manuel

Benitez.

Abenduaren 9an.

■ Markel Bengoa

Abenduaren 16an.

Hildakoak

■ Imanol Sasiain Iturriaga

Azaroaren 30ean. 42 urte.

■ Martina Carrera
Calonge

Abenduaren 7an. 71 urte.

■ Yoana Barreno Cabrero

Abenduaren 9an. 23 urte.

■ Maxima Idigoras Errasti

Abenduaren 16an. 91 urte.

■ Mateo Gallego Ales

Abenduaren 18an. 85 urte.

Txistuak • Txaloak

Gabonak heldu zaizkigu eta inor ez dadin ahaztu denda eta kale bazterrak apaingarriz bete dizkigute. Badirudi, gainera, Gabonak behar bezala ospatzeko ezinbestekoak direla opariak, zenbat eta gehiago hobe, bazkari-afari izugarriak eta kaleak argiz gainezka. Herri askotan izugarrizko gastua egiten dute kaleak apaintzen, zuhaitzak direla, argiak direla...

Aretxabaletan, ostera, diru gutxikin oso polito apain daitekeela herria ikus daiteke: han eta hemen dauden lorategietako zuhaitzei argi politak jarri, olentzero pare bat udaltxeko balkoian eta behar besteko argidun apaingarriak, besterik ez. Gabon izpiritua ez dago argietan ezta oparietan ere, norberaren baitan baizik.





U 1969ko Gabon eguna

Urteetan zehar gabonetako kantek beren lekua izan dute gure kale eta etxeetan. "Olentzero", "Olentzero begi gorri", "Hator-hator"... betidanik abestu izan ditugun kantak dira.

Goiko erretratuko neska-mutilak 1969. urteko gabon egunez, kantuan atera ziren kalera, akordeoilariekin lagunduta. Urte horretan bele-

na ere jarri zen gaur egun ludoteka dagoen lekuan. Guzti hau garai hartan herrian sortu zen talde batek antolatu zuen.

Urte batzuk pasatu dira ordutik, baina gabonetan abesteko ohiturak oraindik ere gure artean jarraitzen du.

Goian ezkerretik eskumara: **Jose Joakin Urutia, Juan**

Jose Orobengoa, Anton Lascurain, Gregorio Lasagabaster, Jose Luis Filarmendi, Juan Ramon Azkoitia.

Behean ezkerretik eskumara: **Mikel Antxia, Peru Bengoa, Jon Zuazabeitia, Josetxo Atxaga, X, Mireia Uribetxebarria, Dabid Agirre, Ane Miren Zubia, Alberto Calvo.**



ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABAETA • TFNOA.: 79 32 34

Aretxagazetak
jai zoriontsuak eta urte
berri baketsua
opa dizue

Urtarrilaren 12an itzuliko gara

Aretz

TABERNA

- Gosariak
- Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Otaratekoak
- Pizzak
- Hanburgesak
- Sandwichak...

ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera 5:15etatik zabalik
Astebukaeretan 11:00etatik aurrera

Markole, 5 behea Tel.: 943 79 20 14
ARETXABAETA



ZORIONAK



KOOP. E.

Zorionak
eta
Urte berri On
opa dizue
zuen inprimategiak



Garai berrietan ere...



Erosotasuna



hemen aurkituko duzu

grupo



**Amuebladora
Mondragonesa**

a. eme. interiores
a. eme. sukaldeak
centro hogar muebles
sofa leku, Zigorrola

• Tel.: 943 79 15 03
• Tel.: 943 77 14 92
• Tel.: 943 77 14 92
• Tel.: 943 77 14 92

aemeinteriores@euskalnet.net

amuebmondra@euskalnet.net